

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

**HEZKUNTZA ELKARBIZITZAN ERAGINA DUTEN
FAKTOREAK: IKASTETXE ETA IRAKASLEEN
ZEREGINA**

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Ansa Peña, Lide.

ZUZENDARIA: Goñi Palacios, Eider.

2020

Laburpena

Lan honetan hezkuntza elkarbizitza egoki batean eragina duten faktore edo dimentsio desberdinak identifikatu eta aztertzen dira. Elkarbizitzaren osagai nagusi diren harremanen inguruan hitz egiten da, eta hauek haurren garapenean duten eragina ere ezagutuko da. Honekin loturik, araudiak ikastetxeko bizikidetzaren inguruan dioena ezagutu eta irakaslegoak duen zeregina aztertzen da.

Honetarako metodologia desberdinak erabiltzen dira. Lanari osotasuna emateko asmoz, ikastetxe bateko Haur Hezkuntzako hiru irakasleri bidalitako galdetegien erantzunak erabili dira. Alderdi teorikoaren eta emaitzen analitik eratorrita, hezkuntza elkarbizitza bermatzeko ikastetxeen, eta batez ere irakasleen, egin beharra zehazten duen proposamena diseinatu eta ondorioak atera dira.

Hitz gakoak: Harremanak. Komunikazioa. Elkarbizitza. Bizikidetzaren Plana.

Resumen

En este trabajo se identifican y analizan los diferentes factores o dimensiones que influyen en una adecuada convivencia educativa. Se habla sobre las relaciones, que forman parte de la convivencia, y su influencia en el desarrollo infantil. Además, se conocerá la normativa establecida en relación a la convivencia en el centro y se analizará el papel del profesorado.

Para ello se han utilizado diferentes métodos. Con el fin de dar integridad al trabajo, se han utilizado las respuestas de los cuestionarios rellenos por tres profesoras/profesores de Educación Infantil de un centro. Tras el análisis de la parte teórica y de los resultados del estudio realizado, se ha diseñado una propuesta en el que se definen las funciones y obligaciones de los centros educativos, en especial del profesorado, para garantizar la convivencia educativa. Por último, se han extraído las conclusiones de todo lo anteriormente visto.

Palabras clave: Relaciones. Comunicación. Convivencia. Plan de convivencia.

Summary

This work identifies and analyses the different factors or dimensions that influence an adequate educational cohabitation. It is going to talk about the relationships, that are a fundamental part of cohabitation, and its influence on child development. In addition, it is going to work on which are the regulations and laws established regarding cohabitation in schools. Teachers role also has been analysed.

Different methods are used for this research. In order to give integrity to the work, the answers to a questionnaire sent to three teacher of Early Child Education from a school have been used. After the analysis of the theoretical part and the results of the study carried out, a proposal has been designed and conclusions have been drawn on the need to develop a proposal defining the functions and responsibilities of a school, mainly of teachers, due to guarantee educational cohabitation.

Key words: Relationships. Communication. Cohabitation. Cohabitation Plan.

AURKIBIDEA

1. Justifikazioa.....	1
2. Marko teorikoa.....	2
2.1. Bizikidetza.....	2
2.1.1. Irakasle eta ikasleen arteko harremanak: atxikimendutik disziplina demokratikora.....	3
2.1.2. Berdinen arteko harremanak: indarguneak eta arriskuak.....	5
2.1.3. Helduen arteko harremanak: heziketa estiloak eta eskolaren testuingurua.....	8
2.2. Eskola bizikidetzaren kudeaketa Haur Hezkuntzan.....	9
2.2.1. Heziberri 2020 eta elkarbizitzarako konpetentzia.....	10
2.2.2. Bizikidetza Plana.....	12
3. Helburuak.....	15
4. Metodoa.....	16
5. Emaitzak.....	19
5.1. Azterketaren emaitzak.....	19
5.2. Esku-hartze proposamena.....	24
6. Ondorioak.....	32
7. Mugak eta hobekuntza proposamenak.....	35
8. Erreferentzia bibliografikoak.....	36
Eranskinak.....	38

1. Justifikazioa

Irakasle, guraso nahiz ikasleak arduratzen dituen arazoen artean aurkitzen dira ikastetxeetan ematen diren gatazka eta jazarpen egoerak. Hain da nabarmena gaiak gizartean duen eragina non, komunikabide desberdinetan ere uneoro azaleratzen den errealitate hau. Gainera, gaur egun bizi den teknologiaz beteriko aro honetan, inoiz baina errazagoa da gainontzekoen eskubide edo ongizatea urratzea sare sozialen edo beste tresnen bitartez. Elkarbizitza eragozten duten portaera hauek ikastetxeetan ekiditeko, irakaslegoak honen inguruko informazioa eta formazioa izatea beharrezkoa da.

Elkarbizitza arazoen konponbidea, honen prebentzioan egon litekeela ulertu beharra dago, hau da, ez da muturreko egoeraraino iritsi beharrik bizikidetzak osasuntsuaren garrantziaz jabetzeko. Izan ere, behin egoera hauetara iritsirik, beranduegi izan liteke ongizaterako bidean. Hau honela beraz, garrantzitsua da irakasle, ikasle nahiz gurasoen artean elkarbizitzaren inguruko kontzientzia piztu eta bide honetan jarraitu beharreko urratsak argi izatea.

Hezkuntzan, eta orokorrean, gizartean bizi den egoerak sortutako kezkek bultzaturik, eskuarteko lan hau, interes pertsonaletik sortu eta eraikitako lana dela esan daiteke, beraz; hezkuntzan, eta gizartean, bizikidetzak norbanakoarengan eta kolektibo osoarengan duen eragina kontutan izanda, ezagutu eta aztertu beharreko gaia da.

Bestalde, Practicum III-an bizitako errealitatea ere erabakiorra izan da lanaren norabidea zehazterako garaian. Kasu honetan, nabarmenak dira bertako ikasleen arteko elkarbizitza arazoak, 2 urtetako haurretatik hasi eta 8 urtera bitarte, bakoitza bere neurri eta mailan. Ohiko liskarrak ez ezik, ikasleek gainontzekoekiko eta irakasleekiko dituzten errespetu faltak ohikotik haratago daudenaren sententzioa gailentzen da.

Aipatutakoak bizikidetzak oztopatzen duela argi dago eta praktikaldian zehar egoera behatu eta irakasleen esku hartze mailaren inguruan hausnartu ostean, gaiari hemendik heltzea interesgarria izan litekeela erabaki da. Neurri berean, elkarbizitzaren inguruan irakurri eta informazioa biltzen joan ahala, lanaren norabidea ere argituz joan da, zenbait portaeren gain arreta berezia jarriaz bai ikasle, bai irakasleen jarrerari dagokionean.

Nahiz eta lanaren oinarrian, beraz, praktikaldian ikusitakoa egon, aurrerago bertako irakasleei galdetegi bat pasa zaie errealitate horren zergatiak aztertu, baieztatu eta egoera hobetze aldera proposamen bat luzatu ahal izateko.

2. Marko teorikoa

2.1. Bizikidetzak

Bizikidetzak kontzeptua, hezkuntzaren kulturen, instrumentu global, positibo eta adierazgarri gisa kokatzen da ikastetxe baten heziketa gaitasuna aitortzerako garaian. Eskolako bizikidetzak, hezkuntza komunitateko partaideen artean sortzen diren harremanen armazoiak dira, sineskerak, portaerak, eta balore desberdinei itxura ematen diena, norberaren bizitza mentalean, psikologikoan eta sozialean eragina duena, baita subjektibitatean ere (Córdoba eta García, 2018). Eskolako bizikidetzak bertan ematen diren ekintzetan eragina du eta hortaz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan ere bai.

Ikastetxeak eguneroko elkarbizitzan aurkitzen diren lotura positibo eta negatiboak gertatzen diren erlazio konplexuen marko psikosozialak osatzen du. Harreman hauen kalitateak haurraren garapen psikoebolutiboan eragina dauka; gainera, harreman horiek eta hauen kudeaketak baldintzatzen dute haurrak konpetentzia sozial eta emozional egokiaren garapena eta bereganatzea jaiotzetik lehen urteetan (Córdoba, Del Rey y Ortega Ruiz, 2014).

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza sailburu den Cristina Uriartek, honakoa adierazten du Eusko Jaurlaritzak kaleratutako "Ikastetxearen Elkarbizitza Plana Egiteko Gida"-n: *"Hezkuntza-sistemaren helburu nagusia herritar bakoitzari, norbanako aske eta gizarte osasuntsu eta moderno baten partaide gisa, osotasunezko eta gogobeteko bizitza lortzen lagunduko dioten baliabide pertsonalak, sozialak, kulturalak, emozionalak eta profesionalak ematea da, gure gizaki-duintasuna eta denok kabitzen garen eta partaide gaitun gizartea garatzeko balio eta irizpide etikoak dituzten baliabideak, alegia."* (Eusko Jaurlaritza, 2016; 7.or.)

Hau honela, hezkuntza-sistemaren helburuetako bat gaitasun sozial eta gizabidezkoak garatzea da, elkarbizitzarako gaitasuna, alegia (236/2015 Dekretua, EAEko eskola-curriculumeko zeharkako oinarrizko gaitasuna). Argi adierazten den bezala, bizitzarako ikasketarik baliagarriena pertsona bakoitzak bere buruarekiko eta beste pertsonekiko harreman positibo bat lortzea da, eta hori da hezkuntzaren ardatz nagusia, zuzentasuna, berdintasuna, elkartasuna, elkarrekiko errespetua eta indarkeriarik ezaren balioei dagokienez. Horregatik, XXI. mendeko heziketaren erronka elkarbizitza, bakea eta giza-eskubideen aldeko heziketaren bidez aurrera egitea da.

Azken hamarkadetan, ikastetxeen curriculumean lekurik ez izatetik, honen erdigunean egotera igaro da bizikidetzak, protagonismoa hartuz. Modu berean, hezkuntza bizikidetzaren inguruko azterketak jakin-min handia piztu du ikerkuntzaren arloan. Hezkuntzaren

eraginkortasunaren garapena gainbegiratzeaz arduratzen diren administrazio eta entitate publiko nahiz pribatuek, arreta berezia eskaini diote elkarbizitzaren inguruko ikerkuntzari, batez ere alderdi nabarienei: pertsonarteko harremanei, elkarren arteko solidaritateari eta ikastetxeko eta gela barruko komunikazio eta interakzio prozesuari (Córdoba, Del Rey, eta Ortega-Ruiz, 2014).

Haur Hezkuntzan, eskola barruan nahiz familian ematen diren pertsonen arteko harremanen analisiak garrantzia eta jakinmin berezia bereganatzen du. Izan ere, ikastetxe batean Haur Hezkuntzako etapan elkarbizitza egokia bada, ondoren datozen etapetan ere bizikidetzak halako kalitatea izaten jarraitzeko aukera gehiago izango ditu.

Haur Hezkuntzako bizikidetzaren analisiak, haurrek erreferentziazko helduekin ezarritako, irakasleekin eta familiarekin *-plano bertikal* modura deitua- , eta berdinen artean ezarritako, ikaskideekin eta taldekideekin *-plano horizontala-*, harreman interpersonalen balorazio eta eragina aztertzea eskatzen du, baita bi plano hauetan sortzen diren zailtasunak aztertzea ere (Córdoba eta Rodríguez, 2018).

Pertsonen arteko harremanak eskolaurreko urteetan dituzten ahalmenak eta arriskuak aztertzeko erreferentzia gisa hartzen diren hiru azpisisistemetan taldekatzen dira:

- Irakasle-ikasle arteko harremana.
- Berdinen arteko harremanak.
- Ikastetxea inguratzen duten eremu sozial eta heldu arduradunen arteko harremanak, batez ere familiekin dagoen harremana.

Ondorengo atalean hauetako bakoitza aztertuko da

2.1.1. Irakasle eta ikasleen arteko harremanak: atxikimendutik disziplina demokratikora

Ikastetxeko eta gela barruko eremuan, aldi berean osagarriak eta banaezinak diren bi harreman bertikal mota bereizten dira:

- Irakasleak ikasleekin duen harremana, curriculumeko jarduera eta egin beharrak aintzat hartuz.
- Irakaslearen harremana ikasleekin norbanako sozial eta emozional gisa, ñabardura afektiboz beterikoa.

Piantak irakasle eta ikasleen arteko harreman bertikal horietan zentratutako ikerkuntzan multzo desberdinak identifikatu ditu bere lanetan (Sabol eta Pianta, 2013):

- *Irakaslearekiko atxikimendua.* Irakasle eta ikaslearen arteko harremana, haurrak gurasoekin duen atxikimendu-ereduaren arabera baldintzatua egongo da, lotura izango du. Hau, hein handi batean, haurrak zaintzaileekin osatzen dituzten irudikapen mentalek irakasleekiko harremanen interpretazioa eta portaera zuzentzen dutelako da. Helduekiko mendekotasun txikiagoa izan ahala, atxikimenduarekiko lotura hori desagertzen joango da. Eskolatzeko-lehen urteetan ikasleak helduekiko duen harreman-eredua irakasle desberdinekin erabiliko da, beraz, garrantzitsua da hurrek dituzten elkarrekintza-moten arteko loturari arreta jartzea. Izan ere, harreman-eredu hori eskola-bizitzan inplikazio handiagoa izatearen oinarrian aurkitzen da, bai momentu horretan berean eta baita etorkizunean ere.
- *Elkarrekintza-ereduak.* Hurbiltasun emozionalean oinarritutako haur-hezkuntzako harremanek, oro har, errendimendu akademiko hobea eta gizarte-gaitasun hoberantz eramaten dute; gatazkan oinarritutako harremanek, berriz, portaera oldarkorrak, berdinen artekoen bazterketara eta gizarte-gaitasun txikia izatearekin erlazionatzen dira.

Wentzel-ek (2013) harremanen kalitatean agertzen diren hiru elementu bereizten ditu: komunikazioa eta itxaropena; laguntza, aholku eta instrukzio eskaintza, eta erraztutako laguntza emozional eta segurtasuna.

Komunikazioari eta itxaropenei dagokienez, garrantzitsua da hezitzaileek hasieratik argi eta garbi adieraztea zein diren beren balioak eta itxaropenak taldeak lortu beharreko portaera eta lorpenei dagokienez. Komunikazioan, konfiantzan eta ekitatean oinarritutako praktikek, neurri handi batean irakaskuntza-balioak eta xede sozial eta akademikoak hartzea bultzatzen dute. Bestalde, ikasleekin bakarka komunikatzean, hau da, haur bakoitzarekin bakarkako elkarrizketa mantentzen denean, bere gaitasunari buruzko itxaropenak islatzen dira, eta horrek eragin nabarmena du ikasle gisa buruan eraikitzen dituen sinesmenetan.

Orokorrean, irakaslearekin lotura seguru eta osasuntsua duten ikasleak, emozionalki beren buruaz seguruago sentitzeaz gain, ikaskuntzarekiko motibazio handiagoa, egokitzapen sozioemozional handiagoa eta autokontzeptu sozial positiboaren garapen handiagoa sentitzen dute. Honetaz gain, irakaslearen laguntza emozionalak eskolako indarkeria-egoeretatik babesten ditu ikasleak. Emozioetan eta enpatia

estimulatuazailan oinarritutako hezkuntza-lanak haurren autokontrolaren oinarriak finkatzen eta harreman-testuingurura aktiboki egokitzen laguntzen du.

- *Irakaskuntza estiloa.* Eskola-diziplinaren kontzeptua eboluzionatu egin da. Kontrolean oinarritutako ikuskera izatetik, ikasleen nortasuna hezteko eta formatzeko tresna globaltzat hartzerara igaro da, lorpen soziomoralera eta bizikidetzara bideratuz. Tradizioz, hiru irakaskuntza-rol ezberdin identifikatu dira ikasgelaren disziplina kudeatzeko: laissez-faire, autoritarioa eta demokratikoa (Córdoba eta Rodríguez, 2018).

Laissez-faire edo jarrera autoritarioaren arteko terminoa desiragarria irakasle demokratikoaren irudian kokatzen da. Irakasle horrek ikasleekin hitz egiten du, eta haren garapen sozial eta morala, baita printzipio moral eta etikoen eta gizalegearen ulermena sustatzen ditu.

Ikasleak dinamiken parte hartzean eta gelako arauetara buruzko erabakiak hartzerako garaian eboluzionatuz doazen heinean, irakaslearen irudiak ere eboluzio bat jasango du. Kontrol gorena izatetik, honen zati bat ikasleei transferitzera igaroko da, betiere gainbegiratzeko arduratsu eta zentzudun bat eginez. Arauak ezartzen direnean, irakasleak horiek betetzeko erreferente gisa jokatzen du irakasleak, eta ikasleek arau horiek proposatzen dituzten heinean autodiziplina eta elkarrizketa sustatzeko joera garatzen dute (Ortega-Ruiz eta besteak, 2008).

2.1.2. Berdinen arteko harremanak: indarguneak eta arriskuak

Berdinen arteko sistema, norbanakoaren izaera pertsonal nahiz soziala moldatuz, haurrak eskuratu eta garatuko dituen konpetentzia eta gaitasunetan eragin handiena duen ingurune soziala da (Córdoba eta Rodríguez, 2018).

Posizio teoriko nagusien jatorria Piageten eta Vygotskyren ekarpenetan oinarriturik daude. Piaget, gatazka soziokognitiboek gizabanakoaren garapen kognitiboan eragin dezaketen hobekuntzaren inguruan jarduten da. Honen ustetan, gatazka soziokognitiboa jarduerara elkarbanatu batean parte hartzen duten pertsonen artean ikuspegi desberdinak kontrajartzen edo aurrez-aurre jartzen direnean gertatzen da. Gatazka horiek zereginetarako funtsezko ezagutza eta eragiteko gaitasun berdinak dituzten estatus bereko kideen artean konpontzen dira, interakzio hori inork menderatzen ez duelarik.

Vygotsky-k norbanakoaren garapena ulertzea ezinezkoa dela adierazi du hau murgilduta dagoen ingurune soziala, instituzionala zein pertsonen artekoa, kontutan izan gabe.

Vygotskyk norbanakoak sozialki sortutako goi mailako funtzio psikologikoak pertsona barneko esparrura transferitzeko prozesu bat atzematen du, non eraldaketa aktibo bat gertatzearen eraginez, alderdi soziala eta indibiduala kualitatiboki berriak bihurtzen diren. Arlo sozialetik indibidualera igarotze hori hurbileko garapen-eremuaren bidez lortzen da. Eremu horretan, ikasleari bere gaitasunetatik haratago joateko aukera ematen dion laguntza-prozesu elkarreragile bat jartzen da abian. Nahiz eta gertuko garapen-eremuko agente aktiboak helduak zein berdinak hartu bere gain, bai eta liburuak eta beste tresna batzuk ere, Vygotsky, Piaget ez bezala, instrukzioaren rolean zentratzen da: bi gizabanakoren edo gehiagoren arteko interakzio asimetrikoa, horietako batek besteek baino trebetasun maila handiagoa duelarik. Jarduera bateratu hori posible izan dadin, beharrezkoa da parte-hartzaileek beren iritzia partekatzeko aukera izatea.

Aipatutako bi teoriak konbergentzia-puntu bat dute, ezagutzaren eraikuntza aktiborako komunikazioaren erabilerari emandako garrantzian zentratzen dena. Hirugarren ikuspegi batek, teoria erlazionalak (Galton, Blatchford eta Kutnick, 2003), urrats bat gehiago ematen du berdinen arteko harremanen kalitateari emandako garrantzian. Ikaskideen arteko harreman motak interakzioa erraztu edo moteldu dezake. Norbanakoen arteko harremana baikorra edo positiboa ez bada, nekez lortuko da elkarren artean negoziazio garatuak adostea. Horregatik, teoria horren arabera, talde-antolaketa eraginkorra izan dadin eta, ondorioz, maila kognitiboan, sozialean eta afektiboan onurak sor dituzan, beharrezkoa da kideek trebetasun sozial eta kognitibo jakin batzuk identifikatzea eta praktikan jartzea. Arreta talde-jardueraren edukian ez ezik, prozesuan eta gizarte-harreman eraginkorrak izateko gaitasunean ere jarri behar da. Eredu hori pertsonen arteko garapenean oinarritzen da - ez indibidualean -, eta klase osoa erabiltzen du garapen horretarako testuinguru gisa. Autore horiek aurkeztutako ikerketen arabera, harreman-ikuspegiak, haurren gaitasun sozialean ez ezik, ikaskuntzan eta besteekin lan egiteko motibazioan ere onurak dakartza (Blatchford eta Kutnick, 2003).

Baina berdinek osatutako testuingurua, ikasleen garapen pertsonal eta afektibo egokirako agertoki izateaz gain, alderantzizko efektua lortzen den lekua ere bada. Harreman-zailtasunak eta -arazoak dira goi-mailako literatura zientifikoan gehien ikertu diren arrisku-faktoreak (Córdoba eta Rodríguez, 2018). Hala ere, zenbait ikerketek agerian utzi dute, haur-hezkuntzatik hasita, ikasle askok norgehiagoka- edo muturreko lehiakortasun-ereduak sartzen dituztela eskolan, batzuetan, tratu txarrak eta indarkeria bezalako arazoak sortaraziz. Zailagoa da haur-hezkuntzako etapan eskola-jazarpenari buruzko azterlanak aurkitzea gainerako hezkuntza-etapetan baino, batez ere, haurrak momentu horretan aurkitzen diren une psikoebolutiboa dela eta irizpide moralik ez dagoelako finkatuta. Hau dela eta, etapa

horretan berdinen sareak duen hauskortasunak zaildu egiten du egonkortasuna, intentzionalitatea eta iraunkortasuna denboran aztertzea, eskola-jazarpeneko jokabideen ezaugarri diren oinarritzko faktoreak (Córdoba eta Rodríguez, 2018).

Hezkuntza- eta eboluzio-etapa horretan gertatzen den eskola-jazarpenaren azterketa beste bi zailtasun nagusirekin aurkitzen da: alde batetik, bitartekaritzarekin eta ebaluazioarekin lotutakoak; bestetik, etaparen ezaugarri den berezko agresibitatearen eta indarkeriazko jokabideen artean bereizketa praktikoa egitearekin loturikoa (Alsaker eta Vilén, 2010). Lehenik, bitartekaritza eta ebaluazioari dagokienez, honen inguruko ikerketa-lanetan, neurri desberdinak txertatzeaz gain, neurri hauen aurrean ikasleek izan dituzten emaitzen erantzunak ere txertatzen dira. Emaitza hauek, ikaslearen zuzeneko behaketaren, honek emandako erantzunaren azterketaren eta irakasleak burututako balorazio txostenaren bidez biltzen dira. Bigarrenik, berezko agresibitatearen eta indarkeriazko jokabideen arteko bereizketari dagokionez, haurrek hezkuntza-etapa honetan adierazten duten berezko agresibitatearekin dute zerikusia, irakasleak eta familiak etapa hori arautzeko balio duena. Erreferentziako helduek agresibitate hori behar bezala bideratzen ez dutenean, eta, hartara, trebetasun sozialak eta erasoaren ordezkotako jarrerak garatzen direnean, jokabide horiek errepikatu egin daitezke denboran.

Ortega-Ruiz eta Monks-ek (2005) horrelako jokabideei *justifikaziorik gabeko oldarkortasuna* deitzen diete. Autore hauen arabera, justifikaziorik gabeko eraso eta bidegabeko biktimizazioa eskolaurreko ikasleen artean dauden gertaerak dira (argi eta garbi identifikatuz biktimen, erasotzaileen eta ikusleen profilak), eta, oro har, eraso zuzenen bidez adierazten dira (fisikoa, hitzezkoa eta harremanetakoa), eta oso gutxitan zeharkako formetan (harremanetakoak edo hitzezkoak).

Arazo hauen larritasuna dela eta, oso garrantzitsua da horiek desagerraraztea eta ekiditea, bizikidetzara eta eskolako giroa hobetuz txiki-txikitatik. Eskolaurreko ikasleek eraso edo zailtasun hauei aurre egiteko abian jartzen dituzten estrategiei dagokienez: lehenengo, helduei egoeraren inguruan informatzea aurkitzen da; bigarren lekuan erasoari erantzutea; hirugarrenean, lagun bati laguntza eskatzea; laugarrenik, egoeratik korrika irtetea; eta, azken lekuan, erasotzaileen mende jartzea (Ortega-Ruiz eta Monks, 2005).

Sentimendu, emozio eta balioetan hezteak, adin goiztiarretan, ez da ikasgelako edo ikastetxeko hezkuntza-jardueratik eta eguneroko bizikidetzatik aldendu behar, ezta tutoretza-ekintzara soilik mugatu ere. Hezkuntza-ekintza eta bizikidetzara txiki-txikitatik lan emozional, sozial eta balioz betetzen diren heinean, ager daitezkeen egoera bidegabe eta indarkeria

egoerei zuzenean aurrea hartzen ariko da. Gainera, curriculumaren plangintzak balioetan oinarritutako hezkuntza jaso behar du, lehen urteetatik egoera bidegabeei aurre egiteko.

2.1.3. Helduen arteko harremanak: heziketa estiloak eta eskolaren testuingurua

Haur hezkuntzako etapan, haur eta helduen artean ematen den harreman garrantzitsuenak familian eta eskolan sortzen dira izan ere, haurra bi testuinguru hauetan bizi eta hezten da. Neurri handi batean, haurraren familiako helduen, eskolako irakasleen, eta haien familien eta irakasleen arteko harremanen kalitatearen menpe egongo da eskolako bizikidetzak.

Irakasleen arteko harremanei dagokienez, gero eta ikastetxe gehiago dira beren harremanak hobetzeko asmoz burutzen dituzten ekintzak. Horietako batzuk, irakasle berriei harrera egiteko ekintzak dira; lanean hasten diren ikastetxeen ezaugarriak, ikastetxearen testuingurua, ikasleen eta familien ezaugarriak eta abar ezagutu ditzaten. Honen helburua zenbait eta irakasle-talde kohesionatuagoa lortzeko saiakera egitea da, giro positibo eta elkar aberasteko giroan ekintza partekatua aurrera eramanez. Hau honela, ikasleei emozio eta sentimendu onak transmititzeko bidea izan daiteke.

Bestalde, jakina da familiaren eta eskolaren arteko elkarreragin esanguratsu eta positiboek onura ugari eragiten dituztela ikasleen portaera eta gizarte-egokitzapenean, baita denboran zehar egokitzapen horri eutsiko diotela ere. Haur hezkuntzan, familien parte-hartzea eta irakasleekiko lotura, oro har, oso aktiboa da. Hala ere, ikasleak adinean aurrera joan ahala, familiak protagonismoa galtzen du, eta irakasleari haurraren heziketaren erantzukizun handiagoa uzten zaio. Garrantzitsua da irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan lotura mantentzea eta familiak prozesu horretan aktiboki parte hartzea, inplikaturik.

Hezkuntza-etapa honetan familiako hazkuntza-estiloak ere garrantzi berezia du. Batzuetan, irizpide jakin batzuetan bat ez badatoz, eskolak duen hezkuntza estiloaren aurkakoa izan daiteke. Tradizioz, badirudi "irakasleei jakintzaren kontuak esleitu zaizkiela, eta gurasoei samurrenak eta familiako maitasun kontuak" (Diez Navarro, 2013, 2016. or.).

Irakaslearen rolaekin gertatzen den bezala, gurasoek ere hezkuntza estilo desberdinak garatzen dituzte beren seme-alabekin sozializazioa lantzerako garaian. Kasu honetan ere, estilo permisibo/axolagabe eta estilo autoritarioaren artean kokatzen da estilo demokratikoa (Córdoba eta Rodríguez, 2018). Azken estilo honek heziketa hobeago baten bidean jartzen du, izan ere, harremanak afektuzkoak dira eta haurren nahiak eta beharrak kontuan hartzen dira; aldi berean, eskakizun-mailak diziplina arrazoitu eta malgu baten bidez mantentzen da.

Irakaslearen eta familiaren arteko harremanetan gatazkak sor daitezke heziketa-estiloen artean desadostasun garrantzitsuak daudenetan. Ondorioz, gatazka honek haurren garapenean eragina izango du, ez baita bi erreferente nagusiek guztiz kontrako ekintzak egiten dituztela barneratzeko gai izango. Gero eta ohikoagoa da ikastetxeek arau eta lan-ohitura osasungarrien kudeaketari buruzko informazioa ematea familiei, modu honetara arau eta lan-ohitura horiek haurrarekin partekatu eta eredu bera eskaintzeko.

Familian nahiz eskolan (estilo demokratikoa gailentzen den testuinguruan), haurrak oinarri egonkorrak finkatuko ditu bere garapen integralerako, balio berezia izanez garapen sozial, emozional eta moralean.

Etxeko girotik eskolaranzko trantsizio aldi horietan, garrantzi berezia dute talde orientatzaile edo psikopedagogiakoek, beste gizarte-eragile eta erakunde batzuek bezala, familiekin dagoen harremana sustatzen eta hezkuntza-lana auzoko eta hiriko errealitatearekin lotzen lagun baitezakete. "Eskola-kultura eta eskolaren inguruko testuinguruaren kultura ez datoz beti bat, eta, kasu askotan, ezta familiaren jatorrizko kulturarekin ere. Hori dela eta, beharrezkoa da aniztasuna ikaskuntza- eta garapen-elementu komun gisa ezagutu eta baloratzeko aukera emango diguten lankidetzak garatzea" (Rodriguez-Hidalgo, Calmaestra, eta Ortega-Ruiz, 2016). Harreman errazak, kalitatezkoak eta lankidetzakoak izan behar dituzten eragileen artean, nabarmentzekoak dira kanpoko aholkularitza-taldeak, haur-arreta goiztiarreko zentroak, osasun-zerbitzuak, udala eta gizarte-zentroak, auzo-elkarteak eta testuinguru berean jarduten duten GKEak, esaterako.

2.2. Eskolako bizikidetzaren kudeaketa Haur Hezkuntzan

Bizikidetzaren konplexutasuna ikusita, ikastetxeak ikaskuntza ekosistema eta pertsonen arteko harreman egokiak eraikitzeke eredu bat diseinatzeko planteamendua egin ahal izateko, sistema hori bultzatzeko edo txikitatik arriskuan jar dezaketen elementuei erantzun behar die.

Espanian, ikastetxeak bizikidetzari ematen dion trataera bere hezkuntza-proiektuan sartu beharreko dokumentuetako bat da, hau da, Elkarbizitza Plana. Bizikidetzak planek modu integratuan jasotzen dituzte bizikidetzak eraikitze bideratutako jarduerak guztiak, baita etapa goiztiarretan ere. Kontuan hartu behar dira sortu daitezkeen zailtasunen prebentzio primarioa eta giza harremanen ahalmenak sustatzea helburu dituzten estrategiak. Jarraian, hezkuntza-prozesua aberastearekin eta ikasgelaren dinamikarekin zerikusia duten haur-hezkuntzarako ekintzak nabarmentzen dira. Gela gizarte-eszenatoki bat da, ezaugarri bereziak dituen, eta ezaugarri horiek bakarrik egiten dute. Ikasgela horrek ikaskuntzan, motibazioan eta

garapenean duen eragina kontuan hartu behar da, hezkuntza hobetzeko bidean aurrera egiteko eta bizikidetzara irazteko funtsezko elementu gisa.

Hori dela eta, hurrengo ataletan batetik Eusko Jaurlaritzak bere Hezkuntza-eredu Pedagogikoaren markoa zehazten duen “*Heziberri 2020*” Planak elkarbizitzarako kompetentziaren inguruan diona jasoko da. Bestetik, modu berean Eusko Jaurlaritzak ikastetxeei zuzenduriko “*Ikastetxearen Elkarbizitza Plana Egiteko Gida*”-n dioena ere bilduko da.

2.2.1. Heziberri 2020 eta elkarbizitzarako kompetentzia

Heziberri 2020 Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak EAE-ko hezkuntza-sistema hobetzeko martxan jarria duen plana da. Plan honek, Europako esparruan hezkuntza eta prestakuntzari buruz 2020-rako finkatu diren ildo estrategikoak eta euskal hezkuntzak dituen berariazko erronkak batzen ditu, sistemaren bikaintasunerantz pausu sendoak emateko eta bidezkoa, kohesionatua eta aktiboa den gizarte bat lortzeko.

Bertan, Curriculumaren ikuspegi orokorra azaltzen dira, ikasleen irteera-profil orokorra adierazten da, hau da, ikasleek Oinarrizko Hezkuntza amaitzean lortu behar dituzten helburuak zerrendatzen dira, eta metodologia- eta ebaluazio-ildo nagusiak adierazten dira. Horrekin batera, ikasleek etapa honetan garatu beharreko kompetentziak zehazten dira:

Heziberri 2020 planak, “Oinarrizko Hezkuntzako Curriculumak” txostenean Elkarbizitzarako kompetentzia honela definitzen du: “Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekotasun-irizpideekin parte hartzea da, gainerako pertsonen aitortuz nork bere buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak, eta horrela, ekarpen bat egitea norberaren eta guztion onari” (2015, 40.or.).

Elkarbizitzarako kompetentzian honako osagai hauek nabarmentzen dira:

1. osagaia: norberaren eta besteren nahiak asebetze daitezkeen komunikazioa uztartzea; hau da, norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adierazten jakin eta, aldi berean, besteren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak adi entzutea eta kontuan hartzeko gai izatea.

2. osagaia: taldean ikastea eta lan egitea, nork bere ardurak onartuz eta helburu komuneko lanetan lankidetzan arituz, pertsonen eta iritzien aniztasunak dakarren aberastasuna aitortuta.

3. osagaia: norberaren portaerak giza eskubideen oinarrian dauden printzipio etikoak eta elkarbizitzaren oinarri diren gizarte-ohituretatik eratortzen diren arauak betetzea.

— Giza eskubideen printzipio etikoetan oinarritutako jokabideak

Giza Eskubideen Aldarrikapeneko artikuluen artean, batzuek garrantzi berezia dute eguneroko bizitzan eta, zehazki, eskolako bizitzan, jokabide altruistak eta elkarbizitza oinarritzeko. Adibidez:

- "Ez da inor bereiziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterria edo gizarteko jatorria, ekonomia-maila, jaiotza edo beste inolako egoerarengatik" (2. artikulua). Atal horretan sar daitezke desberdinak direnen aurkako jokabide diskriminatzaile guztiak.
- "Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere" (5. artikulua). Atal horretan sar daitezke indarkeriazko jokabideak, tratu txarrak, isekak, mehatxuak, bullyinga eta antzekoak.
- "Ez dago arrazoirik gabe beste inoren bizitza pribatuan, familian, etxean edo postan eskusartzerik, ezta inoren ohore edo izen onari eraso egiterik ere" (12. artikulua). Atal horretan sar daitezke intimitate eta bizitza pribaturako eskubidearen aurkako jokabideak edo kalumniak eta gezurrak.
- "Pertsona orok du jabe izateko eskubidea, bakarka nahiz taldean. Arrazoirik gabe, ez zaio inori bere jabegoa kenduko" (17. artikulua). Atal horretan, besterenak errespetatzen ez dituzten jokabideak sar daitezke; hala nola lapurtzea eta besterenak diren ondasunak edo ondasun partekatuak haustea edo zabar erabiltzea.

— Gizarte-konbentzioen arauetan oinarritutako jokabideak

Gizarte-arauek arautzen dute, neurri handi batean, gizarteko bizimodua. Gizarte guztiek eraikitzen dituzte beren jardun-konbentzio eta -arauak. Gizarte-konbentzioek edo -azturek, batetik, bizikidetzaz errazten dute; izan ere, jokamolde batzuk ezartzen dituzte, eta horiek onartutakoan, jokabideak aurreikusgarriak dira, eta ez dira arauak ezarri eta negoziatu behar egoera bakoitzerako. Baina arau edo konbentzio horiek mugak ere ezartzen dizkiote pertsonen jokabideari.

4. osagaia: gatazkak elkarriketaren eta negoziazioaren bidez konpontzea.

Pertsonen eta taldeen artean gertatzen diren gatazkak landuko dira atal honetan. Pertsonak gatazkak dituzte eguneroko bizitzan, eta gatazka horiek familian, eskolan, jolasetan, kirol-eremuan eta beste esparru askotan gertatzen dira. Elkarrekin bizitzen ikasteko, garrantzitsua da gatazka-egoeretan elkarrekin bizitzen ikastea eta egoera horiek indarkeria erabili gabe kudeatzen ikastea, elkarriketaren eta negoziazioaren bidez.

2.1.1. Bizikidetzaren Plana

Eusko Jaurlaritzak 2016. urtean argitaratutako *“Ikastetxearen Elkarbizitza Plana Egiteko Gida”* dokumentuan, izenburuak dioen bezala, ikastetxe guztiek elkarbizitza positiboa sustatu eta ikasleak balio etiko eta sozial sendoetan hezteko jarduerak adosten eta garatzen laguntzeko informazioa biltzen du. Bertan, ikastetxeetan bizikidetzak duen garrantzia azpimarratzen da eta baita hau bermatzeko duten bete beharra ere.

Honen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen den 236/2015 Dekretuan (2016/01/15eko EHAA) elkarbizitzarako gaitasuna, modu honetan zehaztuta agertzen da:

Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasunez parte hartzea, eta norberari aitortutako eskubideak eta betebeharrak besteri aitortzea, norberaren zein guztion ongirako. (7.2.c. artikulua)

EAEEn 2000. urtean abiarazi zen lehenengo aldiz ikastetxeetan elkarbizitza programa. Ondoren, 2007tik 2010era bitartean, Elkarbizitza, Bakea eta Giza-Eskubideen aldeko Heziketa izeneko programak beste bultzadaxo bat eman zion hezkuntza-komunitateari, elkarrekin bizitzen irakasteak duen garrantziaz jabetzeko, hezkuntza integralaren funtsezko alderdi gisa.

Hezkuntza-esparruan, elkarbizitza hezkuntza-komunitatea osatzen duten eragile guztien erantzukizuna da. Hori dela eta, esparru horretan jarduera positiboak sustatu behar dira, eta proposamen eta berriazko esku-hartze bidez elkarbizitzaren kudeaketa (ikastetxearen eta bere inguruaren arteko harreman positiboa, bere araudia, eraketa, eskola curriculumaren kudeaketa...) sustatuko duten taldeak eratu behar dira.

Eskola-komunitate osoak ezagutu behar duen dokumentua izan behar du, eta ikastetxearen hezkuntza-proiektua osatzen duenez, haren identitate-ezaugarri eta jardueraren erreferentzia izango da, berrikusteko aukera izanaz.

a) *Arau-esparrua eta bestelako xedapenak*

Hezkuntza-sisteman indarrean dauden lege orokorrek eta dekretuek elkarbizitzak ikastetxean duen garrantzia jaso eta haren kudeaketa arautzen dute. *“Ikastetxearen Elkarbizitza Plana Egiteko Gida”*-n azaltzen diren bi xedapen nagusiak hauek dira:

- 201/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa. 5.1. artikulua hau dio:

“Jokabideak zuzentzeko prozedurak ikastetxeen praktikan integratu beharko dira hezkuntzako beste baliabide bat izango balira bezala. Funtz publikoek, osorik edo parte batean, sostengatzen dituzten ikastetxeetako elkarbizitzarako planetan jasota behar du jokabideak zuzentzeko prozedurak. Ikastetxe horiek, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak xedatutakoarekin bat, Elkarbizitzarako planak onetsi behar dituzte Hezkuntzako bere proiektuen parte gisa”.

- R2016ko urtarrilaren 18ko Ebazpena, Hezkuntza sailburuordearena, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan eskola-jazarpeneko egoeretarako jardun-protokoloaren aplikazioa arautzen duena. Bertan honako hau dio:

“Ikastetxeak edonolako indarkeriaren aurkako konpromisoa hartu behar du; indarkeria-egintzak saihesteko eskura dituen baliabide guztiak martxan jarri, faktore positibo edo prebentiboen presentzia babestu eta sustatu, eta behar bezalako elkarbizitza aldatzen dutenak gutxitu edo ezabatu behar ditu. Halaber, kaltetutako harremanak onbideratzeko ereduak proposatu beharko dituzte”.

b) *Orientabideak: Elkarbizitza Planaren edukia eta egitura*

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren 5.2. artikuluan zehazten dira elkarbizitzarako planek jaso behar dituzten alderdiak:

“Elkarbizitzarako plan horrek berdinen artean, generoen artean eta kulturen artean elkarbizitzarako funtsezko oinarritzat hartuko du norberaren eskubideak baliatzea eta besteen eskubideak errespetatzea, baita irakasleen, ikasleen eta irakasleak ez diren langileen arteko harremanetarako ere. Agiri horretan, gatazkak modu baketsuan ebazteko, adiskidetzeko eta kaltea ordaintzeko bitartekotza prozedurak jaso beharko dira , baita elkarbizitzarako hezkuntza konpromisoak hartzeko zuzentarauak eta ikastetxean elkarbizitzaren behatokia antolatzeko neurriak ere”.

EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako berdinen arteko tratu txarren aurrean aplikatu beharreko jarduera-protokoloari buruzko Hezkuntza sailburuordearen 2016ko urtarrilaren 18ko Ebazpenaren IV. puntuan honako hau xedatzen da:

“IV. Protokoloa ezagutzera ematea. Ikastetxeek Elkarbizitza Planean prozedurak jasoko dituzte, berdinen arteko eskolako tratu txarreko kasuen aurrean hezkuntza-komunitatea kontzientziatzeko eta protokoloa ezagutarazteko. Jardunbideak zehaztuko dira tratu txarren arloko edozein egoera ikusi edo ezagutzen denerako, eta neurriak hartuko dira, jardunbide horiek eskola-komunitateko partaide guztiek ezagutu ditzaten”.

Hau honela, argi dago Elkarbizitzaren bidean helburu horiek lortzeko baliabiderik lagungarriena ikasleengan elkarbizitzarako eta elkarbizitzarako gaitasuna garatzea dela, giza-eskubideen defentsa sustatzeko balio etiko eta moral sakonetan oinarrituz portaera eredugarri eta Ikastetxe arduratsu izanaz.

3. Helburuak

Ikerketa lan batek ezinbestekoak ditu helburu batzuk finkatzea, lanak dituen hipotesiak baieztatu edo ezeztatzeko, hona hemen lan honen bitartez lortu nahi diren helburuak:

1. Hezkuntza elkarbizitza egoki batean eragina duten faktore edo dimentsioak identifikatu, aztertu eta hau bermatzeko ikastetxeen, eta batez ere irakasleen, egin beharrik zehazten dituen proposamena diseinatu.
 - 1.1. Haurren garapenean harremanek duten eragina ezagutu.
 - 1.2. Bizikidetzaren kontzeptua jorratu.
 - 1.2.1. Araudiak ikastetxeko bizikidetzaren inguruan dioena ezagutu.
 - 1.2.2. Irakasleek ikastetxe bateko bizikidetzaren duen zereginaz jabetu.
 - 1.3. Ikastetxe zehatz bateko Haur Hezkuntzako irakasleek bizikidetzaren alde zer egiten duten ezagutu eta aztertu.
 - 1.4. Ikastetxeetan bizikidetzaren sustatze aldera irakasleek eta irakasleek egin beharreko esku hartze proposamena diseinatu elkarbizitza desegoki baten prebentzioari begira.

4. Metodoa

Ikerketa orok berekin oinarri metodologiko bat dakar. Metodoak, egiteko moduari egiten dio erreferentzia eta kasu honetan, baliatu den metodologiak oinarri kualitatiboa du. Gizarte Zientzien esparruan kokatzen den ikerketa da, kasu honetan Haur Hezkuntzako irakasleen portaera edo bizipenak oinarri hartzen dituena.

4.1. Tresnak

Lan hau burutzeko baliatu diren tresnak bi izan dira. Batetik, praktikaldian zehar burututako behaketa natural parte hartzaile informala. Soziologian Doktore den Patxi Juaristik bere *“Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak”* lanean dioen bezala: *“Behaketa egunero egiten dugun zerbait da. Izan ere, beti gaude besteen portaerei, elkarrizketei, mugimenduei... begiratzen. Denok gara apur bat begirazaleak...Dena dela, egunero egiten den behaketa arrunt eta orokor hau tresna baliagarria izan daiteke ikerketa sozialean, helburuak behar bezala zehaztu, pausoak sistematikoki planifikatu, behatzen ari garena teoria orokorragoekin harremanetan jarri, eta behaketa modu kontrolatuan egiten bada; hau da, behaketaren fidagarritasuna eta balioa kontrolatzen badira.”* (Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2003; 186.or.)

Bestetik, praktikaldia burututako ikastetxeko irakasleei pasatako galdetegia (1. Eranskina) erabili da, oinarrizko jarrerak ezagutzeko asmoz harremanei, bizikidetzari eta bi hauek irakasleak duen eragina eta zereginari buruzko galderez osatua. Irakaslearen funtzio eta lan egiteko moduaren inguruan ez ezik, lan egiten duten ikastetxearen inguruan ere galdetu da; Bizikidetzaren Planaren, funtzionamenduaren eta koordinazioaren inguruan hain zuzen. Galdetegi hau 30 galdera irekiek osatzen dute, erantzun ireki eta zabalak jasotzeko helburuarekin. Mota honetako galdetegiak erantzun sakon eta zabalagoak biltzea ahalbideratzen dute, baita askotan aurreikusten ez diren erantzunak lortzea ere. Hau honela, galdera irekiak oso erabilgarriak dira lan hau bezalako ikerketa esploratorioak aurrera eramateko.

Hona hemen ikerketa metodo hau erabiltzeko arrazoiak (García, 2010):

- Ikerketa esploratzaile bat egin nahi da, oinarrizko ikerketa bat, aurretik datu zehatzik egon gabe egoeraren argazki orokor bat jaso nahi da.
- Gertakari baten aurrean egon daitezkeen oinarrizko jarrerak ezagutu nahi dira. Adibidez, zenbat dauden jarduera, ekintza edota egitasmo baten alde edo aurka.
- Gertakari baten aurrean egon daitezkeen ikuspuntu, jarrera eta iritzi ezberdinak sakontasunez ezagutzeko nahia dago.

- Gai zehatz baten inguruan pertsonak eduki ditzaketen esperientziak, bizipenak eta pertzepzioak sakontasunez ezagutu nahi dira.
- Gai baten konponbidea bilatzeko garaian, proposamen eta ideia ezberdinak jasotzeko nahia dago, hau da, ekarpenak, irtenbideak edota egitasmo desberdinak bildu eta irudikatu.
- Gertakari edo gai baten garapenean (eboluzioan) sakontzeko eta etorkizunerako lan-ildoak aurreikusteko baliagarria da, baita hausnarketa eta sormen lana bultzatzeko ere.

4.2. Parte hartzaileak

Datu bilketa hau, Zizurkilgo Zubimusu Ikastolan burutu da, lau irakasle dituena. Galdetegia bertan Haur Hezkuntzako etapan lan egiten duten hiru irakaslek bete dute. Ikastetxe honetan, Haur Hezkuntza bi ziklotan banaturik dute, 2-4 eta 4-6 urteko adin tarteetan, 26 ikasle guztira, talde bakoitzak bere tutorea duelarik. Galdetegia beraz bi tutoreek eta arratsaldetan hauetako bat ordezten duen irakasleak bete dute.

Bi ziklo hauetako ikasle nahiz irakasleek ia uneoro hartu emanean dihardute, jarduera zehatz batzuk burutzeko izan ezik. Harrera, zirkulazio librea, jolasgaraia, jarduera asko eta asko... elkarrekin egiten dituzte. Kontestua kontutan izanik, beraz, harreman eta elkarreraginaren presentzia nabarmena den honetan, elkarbizitzak ere garrantzia berezia hartzen du, kasu honetan aztergai dena.

Honenbestez, guzti honen xedea, ezarritako helburuak lortzeko beharrezko informazioa lantzea eta honen inguruan hausnartzea da, bukaeran esku hartze proposamena luzatuz.

4.3. Prozedura

Lan honek jorratuko duen lerro generikoaren aukeraketa egin zenetik gaur egun aurkitzen den puntura iristeko hainbat fase desberdinetatik igaro da.

Lehena, izenburu orokor bezala “Pertsonen arteko harremanak Haur Hezkuntzan” kontzeptu zabalaren barnean zeren inguruko azterketak egingo den zehaztea izan da. Honetarako, beharrezkoa izan da gaiaren inguruan dokumentatzea eta bertako interesguneak identifikatzea. Zentzu honetan Practicum III.a ere baliagarria izan da ikasgeletan aurkitzen den eta gizartean kezka sortzen duen errealitatea ezagutu eta honetan oinarritutako lana burutzeko.

Behin gaia zehaztuta, honen inguruko bilaketa bibliografiko sakonagoa egin da lanaren oinarri teorikoak finkatuz. Kontzeptu desberdinak lantzeaz gain, alderdi juridikoari dagozkion dokumentuak ere aztertu eta kontutan izan dira lan hau aurrera eramateko.

Alderdi teorikoa osaturik, atal enpirikoa landuz eman zaio lanari jarraipena. Zati hau garatzeko, garrantzitsua izan da lanak dituen helburuak zehaztea honen norabidea ere argitzeko. Hau eginda, ikastetxeetako errealitatea sakonago ezagutzeko asmoz irakasleei zuzenduriko galdetegia osatu da, izaera kuantitatiboa duena. Honetarako garrantzitsua izan da atal teorikoan ikusitakoa kontutan izatea eta hezkuntzan ematen diren harremanen, bizikidetzaren eta ikastetxeko Bizikidetzaren Planaren inguruko galdera irekiak egin dira.

Galdetegien erantzunak jasotzearekin batera, hauen analisisa egin da. Galdetegi hauetatik lortutako informazioa, kategoria sistema desberdinetan sailkatuz adierazi da lanean. Analisis honetan ere garrantzitsua izan da aurretidanik landu den guztia kontutan izatea.

Bukatzeko, atal teorikoan eta enpirikoan bildutakoa kontrastatuz, eta lanaren helburuak kontutan izanik, esku hartze proposamen bat diseinatu da eta ondorioak atera dira. Proposamen honetan, harreman osasuntsu eta bizikidetzaren egoki baten alde ikastetxeak, eta batez ere irakasleak dituen egin beharrak zehazten dira baliagarri izateko asmoz.

5. Emaitzak

5.1. Azterketaren emaitzak

Egin den azterketaren emaitzak, irakasleek betetako galdetegietan lortutako informaziotik eratorriak dira (2. Eranskina). Honetarako, galdetegietan eman diren erantzunen eduki-analisia egin da eta kategoria sistema identifikatu da:

- Talde filosofia
- Irakaslearen eragina
- Harremanen eragina haurren garapenean
- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua
- Elkarbizitza Plana
- Elkarbizitza arazoak
- Familiak

Hau honela beraz, jarraian ematen den informazioa kategoriaka antolatuta dago.

— Talde filosofia

Galdetegien analisia egiterako garaian, inkestak ikutzen dituen gai eta alor desberdinetan hiru parte hartzaileen erantzunetan antzekotasun handiak daudela nabarmentzen da. Honek lan taldearen filosofia eta lan egiteko modu sintonikoa erakusten du. Modu subliminalean atzematen den koordinazioa izateaz gain, hezkuntzan lan taldearen koordinazioak duen eragin izugarria ere aipatu da: ikastetxe bateko irakasleen jarrerak, ekintzak eta erabakiak modu bateratuan joan behar dutela azaldu da. Modu berean, gatazka egoeretan irakasleek modu koordinatuan erantzutea ikastetxeko elkarbizitzarentzat ere onuragarria delaren ideia dago. Hau guztiaren jakitun izanik, azken ikasturteetako erronka, beste hainbaten artean, elkarlana sustatu eta lantzea dela onartu da.

— Irakaslearen eragina

Irakasleak gelako elkarbizitzan duen eragina eztabaida ezina dela azaldu da. Figura honek ikasleengan duen eragin izugarria kontutan izanik, eredu izan behar duela esan da, bai bere jarrera, ekintza, erabaki eta komunikatzeko moduan ere. Hau honela, modu egokian komunikatzen jakitea beharrezkoa dela aipatu da eta gatazkak kudeatzen jakiteak duen garrantziaren irudipena ere badago. Ideia hau argi eta garbi adierazi du 3 irakasleak ondorengo hitzetan: “Eredu naiz besteen aurrean: errespetuz hitz egiten dudana ala ez, enpatia dudana besteekin, epaiketak egiten ditudana ala ez... Eredu on bat ematen saiatzen

naiz. Elkarrekin positiboki bizitzen ikasi egiten da eta landu egiten da.” (2. Eranskina, 3 Irakaslea).

— Harremanen eragina haurren garapenean

Hezkuntzan harremanek duten garrantziaren inguruan galdetu denean, hiruek ere, hauen kalitatea ezinbesteko faktore moduan aipatu dute haurraren heziketa eta garapen egokia emateko. Harremanek pertsona eta beraz haur baten garapenean duten eragina azpimarratzen da; eragin positibo nahiz negatiboa. Errespetu eta konfiantzazko harremanetan hezten den haurrak, segurtasuna, autokontzeptu positiboa eta bere buruarengan konfidantza izaten garatzen lagunduko dutela esan da. Giro ezkorrek, mesfidantzazkoek eta beldurrek aldiz, blokeoa eragin diezaiekela azaldu da.

2 Irakaslearen hitzetan, “Haur Hezkuntzako etapan hasten dira umeak sozializatzen, taldeko parte izaten, harremanak eraikitzen, berdinkideak kontuan hartzen, hauek ezagutzen, beraz, etapako urte hauek ere berebiziko garrantzia izango dute haurren trebetasun sozialak garatzen laguntzeko. Elkarbizitzaren oinarriak finkatzen hasteko.” (2. Eranskina, 2 Irakaslea). Harremanen barnean, komunikatzeko moduak duen berebiziko garrantzia ere aipatua izan da sarritan, ikus daitekeen bezala, eragile gako moduan izendatuz; errespetuz hitz egitea, empatia azaltzea, komunikazio ez bortitza erabiltzea... ezinbestekoak direla esan da harreman eta beraz elkarbizitza osasuntsua izan nahi bada.

— Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua

Zubimusu Ikastolak, Heziberri 2020 planak zehazten duenari jarraituz, bere oinarrizko kompetentzien artean biltzen du elkarrekin bizitzen ikastearen kompetentzia Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zikloetan. Haur Hezkuntzan gehienbat zeharka lantzen den kompetentzia bada ere, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan modu zuzenean ere lantzen da. Honetaz gain, azken ikasturteetan KIVA programa martxan dago ikastetxean eta DBH nahiz LHko ikasleekin honen lanketa egiten da. Programa hau, Finlandiako Hezkuntza Ministerioak garatutako eskola jazarpenaren aurkako programa bat da eta ondorengo hiru oinarriak ditu nagusi:

1. Prebentzioa:

Kivaren helburuetako bat ikasle guztiei zuzenduriko ekintza globalen bitartez eskola jazarpena ekiditea da. Ekintza hauek ez dira erasotzaile edo erasotuari soilik zuzenduta egongo, baizik eta ikas talde osoari, talde osoarengan eragina izatea baitu

helburu, ematen den kasuetan egoera desegoki aurrean erantzun egokia emateko gai izan daitezen.

2. Esku hartzea:

Eskola jazarpena gertatzen ari den kasuetan esku hartzea egiteko ekintza espezifikoak ere zehazten ditu programak. Erasotzaileari eta biktimari zuzenduak egoteaz gain, hauen inguruan dauden ikasle multzo txiki bat ere hautatzen da erasotuari babesa eskaini eta jazarpena amaitzeko.

3. Ikuskapena:

Kivak ikastetxearen hasierako egoera ebaluatzen duen eta aldaketen aurrean etengabeko jarraipena egiten duen erreminta bat ere badu sarean online.

Haur Hezkuntzara itzuliz, elkarbizitza sustatzeko ekintzak gehienbat zeharka ematen direla esan bada ere da, gutxi batzuetan helburu bezala elkarlana, bizikidetza, enpatia, errespetua...lantzeta duten jarduerak burutzen dira. Hala ere, batez ere egunerokotasunean irakasleak irakasleak ikasleekin duen bakarkako harremanetan nahiz ikasleek euren artean dituzten harremanetan jartzen dute fokua jarrera eredugarria izan eta elkarbizitzarako giro egokia sortuaz.

— **Elkarbizitza Plana**

Galdetegien erantzunetan nabarmentzen den bizikidetza egoki baten aldeko posizionamendu argia kontutan izanik, deigarriak dira Ikastetxeko Elkarbizitza Planaren inguruan jaso diren erantzunak, izan ere, hiruetatik batek soilik du honen eduki eta funtzionamenduaren berri; gainera azken honek ere ez du bere osotasunean ezagutzen, honelaxe adierazi duenez: “Bertan jasotzen denaren berri ez daukat. Planean jasotako alderdiren batek eragina badu HHko etapari begira, alderdi hori azaltzen digute, baina, ez plana bere osotasunean.” (2. Eranskina, 3 Irakaslea). Beste biek, plan honen izatearen berri eduki arren, ez dute ezer haratago ezagutzen. Baina, aitzitik, bat datoz Bizikidetza Planak ikastetxearen errealitateari erantzun beharreko plana izateaz gain, honen eraketan etapa desberdinetako irakasle, ikasle nahiz familiek parte hartu beharko luketeelaren ideiarekin.

Hau honela, Bizikidetza Planaren diseinu, eduki eta funtzionamenduaren inguruan jasotako erantzunak hauexek izan dira: Indarrean dagoen plana orain dela 10 urte inguru ikastetxeko Bizikidetza Taldeak, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ordezkariak osatua, diseinatutako da, egitekotan, ikasturtez-ikasturte moldaketa txikiak jasan dituen. Moldaketa horiek egiteko ardura ere Bizikidetza Taldearena da eta irakaslegoaren

formakuntzarantz bideratuak daude gehienbat. Plan honek neurri batean ikastolaren errealitateari erantzuten diola esan den arren, baduela zer hobetua azaldu da.

Lehenago aipatu bezala, Elkarbizitza Planak biltzen duenaren inguruko ezagutza oso urria da irakaslearen artean, “beharra sortzen denean soilik” lantzen delako (2. Eranskina, 3 Irakaslea). Modu berean, ikas komunitatearen parte diren ikasle, guraso edo beste eragileei ere ez zaie Bizikidetza Planaren berri ematen. Honen harira, irakaslearen partetik komenigarria ikusten da plan honen eraketan ikas komunitatearen parte diren irakasle, ikasle eta familiekin parte hartzea eta baita honen inguruko ezagutza osoa izatea ere. Honen adibide dira 1 Irakaslearen adierazpenak: “Ikastolako errealitateari erantzunez, eratu beharko litzateke plan hau (honen inguruko hausnarketa bat egin). Etapa ezberdinetako pertsonak hartu beharko lukete parte. Familiekin eta ikasleekin ere parte izan beharko lukete.” (2. Eranskina, 1 Irakaslea).

Bukatzeko, Elkarbizitza Planak Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan duen presentzia Haur Hezkuntzan duena baino handiagoa dela aipatu da. Ildo honetatik, deigarria da ikastetxeko Bizikidetza Taldean esaterako etapa honetako irakasleekin inongo presentzia edo parte hartzerik ez izatea.

— **Elkarbizitza arazoak**

Elkarbizitza arazoaren aurrean ematen diren erantzunen inguruan galdetzean, denen partetik nahiko jarrera edo urrats antzekoa ematen direla ikusi da. Gatazka edo bizikidetza kasuen aurrean lehenik eta behin egoera zein den aztertzen du irakasleak, informazio bilketa egiten du. Ondoren irakasle taldearekin egoeraren inguruan hitz egiten du, beharrezkoa ikusten denetan familiarekin ere hitz egingo da. Behin hau eginda, kasuari irtenbide bat ematen saiatuko da eta bukatzeko egoeraren jarraipen bat ere egingo da. Kasurik larrienetan, Bizikidetza Taldearengana jotzen du irakasleak laguntza eske eta bertan Kiva taldearen lana izango da egoera kudeatzeko urratsak azaldu, bideratu edo aholkuak ematea.

Gatazka edo elkarbizitza arazoekin jarraituz, berdinen arteko tratua txarren aurrean aplikatu beharreko jardura-protokoloaren inguruan ere galdetu da. Hemen ere, hirutik batek soilik du protokoloaren berri, Bizikidetza Planaren funtzionamendua ezagutzen duen irakasle berberak hain justu. Berdinen arteko tratua txarren aurrean aplikatzen den jardura-protokoloaren erantzukizuna ere Bizikidetza Taldearen barnean dagoen Kiva Taldearena da: Talde honen partaide direnek dute protokoloaren nondiko norakoaren berri, eta beraz, arazoren bat egotekotan, hauengana jotzen da jarraitu beharreko urratsen berri jakiteko. Hala eta guztiz ere, Haur Hezkuntzaren kasuan haurrak txikiegiak direla kontsideratzen da

eta ez da protokolo hau jarraitzen, Bizikidetza Taldeak emandako beste aholku batzuk jarraitzen dira.

— Familiak

Aurreko kategorietan familien inguruko aipamenak irakurri ahal izan dira. Jakin denez, nahiz eta familiak ikas komunitatearen parte diren neurrian zer esan eta eragin handia dutela adierazi, familien parte hartzea ez da oso handia ikastetxearen elkarbitzaren aldeko erabaki edo ekintzei dagokienean.

Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zikloetan Kivaren inguruko azalpenak urtero ematen bazaizkie ere, Haur Hezkuntzan ez da honelakorik egiten. Hau honela, familiek “presentzia handiagoa izan beharko luketela” esan da, “adibidez, bizikidetza taldean parte hartuz” (2. Eranskina, 3 Irakaslea). Informazio transmisio eta parte hartze urri hau dela eta, zaildu egiten da ikasleengan hainbesteko eragina duten familien eta eskolaren arteko bizikidetzaren aldeko koordinazioa.

Laburbilduz beraz, irakasle bakoitzak harremanen eta elkarbitzaren inguruko kontzientzia eta honetan irakasleak duen eraginaren jakitun izanik ere, hainbat alderdi hobetzeko dituztela esan da kasu guztietan. Horien artean aurkituko da esaterako Bizikidetza Plana behar bezala eratu eta ezagutzeko beharra, edota familien parte hartzea areagotzea. Ikastetxearen beharrei erantzungo dien plan egoki bat sortzeko, ikastetxean bizi den errealitatea aztertu, baloratu eta ikas komunitate osoa kontutan edukiz egoerara moldatzen den plan bat diseinatzea proposatu da. Komunikazio egokiaren garrantzia ere behin baina gehiagotan azpimarratu da osagai gako moduan izendatuz. Aipagarria da baita ere, nahiz eta galdetegia bete duten irakasleek Haur Hezkuntzan harremanek eta elkarbitzak duten ezinbesteko garrantzia eta eraginaz kontziente izan, bertan jasotako informazioa aztertu ostean ikastetxearen partetik kontzientziazio maila ez dela berbera: Bizikidetza Taldean esaterako ziklo honetako irakasleek ez dute inongo lekurik, nahiko esanguratsua dena. Irakasleen arteko koordinazioaz ere hitz egin da, denek jarrera eta egoera desberdinen aurrean erantzun koordinatuak ematearen garrantzia azpimarratuz. Bukatzeko esan, hiruek ere elkarbizitza egoki baten oinarrian ezinbestekotzat ikusten dutela bai ikasle, irakasle, guraso edo gizartearen parte den orok denok desberdinak garela ulertzea, eta beraz modu berean gainontzekoen onarpena eta errespetua azaltzea.

5.2. Esku-hartze proposamena

a) Ikastetxearen funtzioa

- **Elkarbizitza arazoaren prebentzio, erantzun eta konponbiderantz bideratutako ekintzen programazioa.**

Argi geratu da lan osoan zehar, beharrezkoa dela jokoera desegokiei hezkuntzak erantzun edo irtenbide bat ematea. Prebentzio ekintza, erantzun eta konponbide hauek, hiru multzo desberdinetan sailkatzen dira helburuaren arabera (1. Taula) : lehenengo, bigarren eta hirugarren mailako ekintzak hain zuzen.

1. Taula. Ikastetxeak elkarbizitza arazoaren prebentzio, erantzun eta konponbiderantz bideratutako ekintzak.

Lehen mailako ekintzak	<p>Prebentziorantz bideratutako ekintzak dira, garrantzia berezia dutenak bizikidetzaren bidean. Ikastetxeak ahal duen guztia egingo du elkarbizitza urratzen duten portaera desegokiak ekiditeko. Puntu honetan:</p> <ul style="list-style-type: none">— Baloreetan oinarritutako hezkuntza diseinatuko da.— Bizikidetzaren Plan egoki bat sortuko da.— Beharrezkoak diren egitura-aldaketak emango dira: giro egokia sortzen duten baldintzak sortuko dira.— Gaitasun sozial eta komunikatiboen garapena lehenetsiko da.— Harreman osasuntsuak sustatuz gatazka mingarriak sortzeko arriskua murriztuko da.— Eztabaidak modu egokian aurrera eramaten eta egoera desatseginak konpontzen ere ikasiko dute ikasleek.— Tutoretzaren garrantzia azpimarratuko da.
------------------------	--

	Lan honetan garrantzia berezia du irakasleak eta honen betebeharra da, hain zuzen, aurrerago azalduko diren alderdiei ere behar bezain besteko inportantzia ematea.
Bigarren mailako ekintzak	Hauek behin portaera desegokiak ematen direnean jarriko dira martxan. Bizikidetza urratzen duten jarrerak ematen direnean esku hartzea egin beharko da, ondorio bat dute eta konponbidea bilatu beharko zaie.
Hirugarren mailako ekintzak	Maila honetan aurkitzen diren ekintzak, ohikoak ez diren esku hartze edo tratamenduak egin behar diren kasuei zuzendurikoak dira. Zenbait portaera edo jokabide desegokiren aurrean, hauen larritasun maila ebaluatzeko beharra dago eta eskola-ingurunetik kanpo garatzen diren tratamendu espezializatueta joko da.

— Hezkuntza Proiektua

Ikastetxea bizikidetza demokratikoa sustatzen den esparrua da, bere Hezkuntza Proiektuaren barnean baloreen garrantzia atzeman eta nabarmendu behar da, Curriculumaren eremu desberdinetan agertu eta garatuz. Ikastetxeak, oro har, eta irakasleek, bereziki, berdintasun-giroan eta ikasle guztiei laguntzeko giroan egin behar dute lan; baloreetan eta bizikidetza-arauetan hezteka baita aniztasunari arreta egokia emateko bidea.

— Lan-taldearen filosofia-koordinazioa

Ikas komunitateko partaide guztiek modu koordinatu eta antolatuan lan egitea beharrezkoa da. Honegatik, hauen arteko komunikazioa oinarritzkoa da modu bateratuan jardun eta lan egiteko. Ezinbestekoak dira beraz, hurrengo baldintzak:

- Irakasleen eta tutorearen arteko koordinazioa.
- Tutoreen eta ikasketa buruaren arteko koordinazioa.

- Errealitatera behar bezala gerturatu eta ulertzeko ikuspuntu eta ideia desberdinak aintzat hartzea.
- Koordinazio didaktikoari garrantzia ematea.

— Bizikidetza Plana

Ikastetxe batek jokabide desegokiak saihesteko bertako Bizikidetza Plana behar bezala diseinatu behar du, lehen mailako ekintzetan aurkitzen dena. Honetarako, ikastetxearen parte diren agente desberdinek bizikidetza kontzeptua nola ulertu edo definitzen duten jakin beharko da. Baliteke puntu honetan agente desberdinen arteko lehen gatatzak sortzea, izan ere, iritzi desberdinak azaltzen diren unean bertan, gatatzak sortzeko arriskua dago. Askotan gertaera negatibotzat hartzen dira, errespetuz eta modu egokian aurrera eramanda ikasbide ezin hobekak direla ahantzita. Honegatik, argi eduki behar da Bizikidetza Plan idealenak ere ez dituela ikasgeletako gatatzak desagerrarazten, baizik eta modu egokian kudeatzen lagunduko duela.

Bizikidetza Planaren diseinuarekin hasi baino lehen, beharrezkoa da ikastetxean eta honen ingurunean bizi den errealitatea aztertzea. Honela, inguruneak eta ikastetxeak dituen indar eta ahulguneak identifikatu eta honi erantzuna ematera bideratutako helburuak zehazteko modua dago. Testuinguruaren arabera, ikastetxearen antolaketa eta pedagogian eragina duten aukera eta bide desberdinak diseinatu eta ezarriko dira. Planaren diseinuak koherentzia logikoa izan behar du, errealista eta sendoa izanaz. Honetaz gain, ikasturtez-ikasturte analizatu eta moldatuko da, ikastetxearen errealitate eta beharrei erantzunez.

Esan beharrik ez dago hezkuntza komunitate osoa hartuko dela kontutan honetarako; baita gurasoak ere. Ikastetxean eta gelan nagusi diren arauak hezkuntza komunitate osoak adostu eta ezagutuko ditu, baita prozesuaren jarraipena eta ebaluazioa egin ere.

Hau honela, ikas komunitateko protagonista nagusi bezala, ikasleek ikastetxeko elkarbizitza arauak ezagutu eta landuko dituzte modu zehatzean: Hobe da arau gutxi batzuei eta horiek ez betetzearen ondorioei heltzea, pixkanaka kopurua handitzen joanaz.

Atal honekin bukatzeko, gauza bera gertatuko da berdinen arteko tratatu txarren aurrean aplikatu beharreko jarduera-protokoloarekin. Irakasleek honen funtzionamendu eta nondik norakoa ezagutu behar dute eta komenigarria da baita ere ikas-komunitatearen parte den orok ezagutzea. Hala ez bada, nahiz eta familia eta ikasleek esaterako honen funtzionamendua modu zehatzean ez ezagutu, protokoloaren existentziaz eta funtzioaz jakin dezatela.

b) Irakaslearen eragina

Esana dago jada irakasle eta tutoreak ikasleen artean duten eragina nabarmena dela. Honek, profesional bezala duten garrantziaren edo zereginaren inguruan hausnartzera eramango ditu askotan, baita beren lanari buruzko auto-ebaluazioa egitera ere. Izan ere, batzuetan arazoa edo erruduntasuna ikasleengan jartzen da, beren akatsei erreparatu gabe. Honegatik, irakasleek dituzten jokabideen inguruan pentsatzen jarri eta praktika profesionala ere birplanteatu beharra dago. Irakasleak bi zentzutan du eragin nagusia ikasleengan:

- Batetik, irakaslearen aurreiritzi eta itxaropenek ikasleengan duten eragina dago. Hau da, hezitzaileak bere proiektu, ikasle eta lanean benetan sinetsi behar du honek funtzionatu ahal izateko. Jarrera positiboa azalduko du eta modu berean, zabaltzen dituen mezuak ere halakoak izango dira. Hala izan ezean, lortu nahi denaren kontrako efektua lortu daiteke.
- Bestetik, irakaslearen jarrera eta transmititzen dituen baloreek ikasleengan duten eragina dago. Irakaslea erreferentzia bat da ikaslearentzat, eta harekin identifikatzen da, haren ezagutzekin, jarduteko moduarekin eta trebetasunekin. Irakaslearen portaerak eragin handia du bizikidetzarako giro egokia sortzerakoan eta honegatik, eredu zuzena eman behar du, bai hitzaren eta baita jokabidearen bidez. Errespetuan oinarritutako balio demokratiko eta parte-hartzaileen eredu da, funtsezkoak baitira ikasgelan eta beraz ikastetxean ikasleek bizikidetzara barneratu eta gatazken aurrean erantzun egokia emateko.

— Komunikazioa

Beharrezkoa da irakasleak ondorengo puntu hauek kontutan izatea bere ikasleekin, edota edonorekin, harremandu edo komunikatzeko garaian:

- Komunikatzeko modua: tonua, diskurtsoaren argitasuna, keinu-hizkuntza (beste pertsonari begira).
- Jakinarazten den hori, lehen pertsonan azalduko da, norberaren pentsamenduaren adierazpenak izango baitira. Adibidez: "Gaizki sentitzen naiz kasu egiten ez didazunean".
- Esan nahi dena adierazteko tokia eta unea egokiak izatea.
- Enpatia azaltzea.

Neurri berean, hauexek dira irakaslearen partetik onartezinak diren jarrerak:

- Mehatxuak
- Moralizatzea, errieta egitea.
- Epaitzea, kritikatzeta, erru osoa ikasleari/beste pertsonari egoztea.
- Bere kabuz irakaslearen/beste pertsonaren testigantza izan gabe interpretatu, aztertu eta diagnostikatzea.
- Gaitzespen moduan galdetzea.
- Zalantzan jartzea.
- Ezizenak jartzea, ikaslea/beste pertsona barregarri uztea.

c) Irakaslearen funtzioa

— Ikasleak

Irakasleak eredu izateaz gain, ikasle bakoitzaren osotasun, zoriontasun, garapen eta ongi izatearen inguruko interesa izan behar du. Hau honela, honako funtzio hauek beteko ditu irakasleak bere tutoretza lanean:

- Ikasle bakoitzari banakako arreta eskainiko dio, honengana hurbildu eta bere ongizatearen inguruan arduratuko da. Bakoitzaren garapen, arazo eta zailtasunak hartuko ditu aintzat irakasleak, bere beharrei modu egokian erantzuteko estrategiak zehaztuz.
Norberaren autonomia garatzen lagundu behar du, haurren garapenaren alderdi guztiei erantzun behar zaie. Ikasturte osoan zehar burutuko den jarraipena egingo da eta informazioa bilduz joango da ikasleak jasan duen bilakaeraz ohartzeko.
- Ikasleari bere alboan dagoela sentiaraziko dio, edozer duela ere, irakaslearengana jotzeko aukera eta konfiantza duela. Honegatik, bere kezka, zalantza eta gaizki egonen aurrean, enpatia azalduko du, hauek gainditzen lagundu eta laguntza emozionala eskainiz. Oso garrantzitsua da haurren lehen urteetatik konfidantza edo gertutasun hau sustatzea eta bere hezkuntza ibilbide osoan zehar jarraipena ematea. Hezkuntzak norbera ez ezik, gainontzekoak eta ingurunea modu positiboan baloratzeko jarrerak sustatu behar ditu, desberdintasunak ulertuz eta onartuz. Ildo

beretik, ikasleen gaitasunak goraiapatuko dira uneoro modu motibagarrian. Beraien autonomia eta konfiantza sustatu behar dira, gai direla ikusarazi behar zaie.

- Ikaslearen jarduerak ez du etengabeko kontrola jasan behar, norberari gogoeta egiteko denbora eman behar zaio. Ikaslearen gaizki egon, estres edo haserre egoeraren aurrean, lasaitzen laguntze aldera, gelatik irteten utziko zaio, lasaiago edo erosoago sentituko den eremu edo espazio batera mugitzeko aukera emanaz.
- Arau hausteez izango dituzten ondorioez ere informatu beharko da. Ondorio hauek, berehalakoak izango dira, hau da, ekintza eman bezain laster emango da erantzuna, hala izan ezean, ekintza eta ondorioen arteko lotura egitea zaila izango da haurrarentzat. Bestalde, jarrera desegokiei aukera edo konponbide desberdinak eskaini edo aurkitu beharko zaizkie.
- Nola ez, jarrera egokiak ere kontutan hartu beharko dira, hauek momentuan eta modu zehatzean sarituz. Egokia izan den portaerak jasoko du errekonozimendua eta ez du balio “ondo portatu zara” esateak, adibidez. Honen ordean, “oso ondo, eskerrak eman dizkiozu” edota “ze ondo, arretaz entzun nauzu” esango da.

— **Familiak**

Jakina da haurren lehen urteetan, ikasleen guraso edo familiakoak eta irakasleak direla beren erreferentzia nagusiak. Hau honela, guztien parte hartzea, elkarlana eta koordinazioa funtsezkoa izango da bide honetan. Ikasleen familiek ere ikastetxean aplikatzen den filosofia, balore eta beraz, Bizikidetzaren Planaren ezagutza izan behar dute. Ikastetxe eta familia arteko harreman honi esker:

- Gelan ez ezik, irakasleak bere ikasleek etxean duten portaera, dituzten familia arauak...ezagutuko ditu. Modu honetan ikasleek ikastetxean azaltzen dituzten jarrera desberdinak ulertzeko modua du. Bestalde, eskola-familia arteko harreman honek, elkarlanean eta noranzko berean lan egiteko aukera ematen du.
- Aipatu bezala, familia-ingurunean sortzen da haurraren nortasuna. Beraz, funtsezkoa izango da seme-alabei eredu egokiak eskaintzea: familiak bere baitan sortzen diren gatazkei aurre egiteko eta horiek konpontzeko irtenbideak bilatzeko konpromisoa hartu behar du. Honetarako ezintasunen bat izatekotan, ikastetxera laguntza edo aholku eske jotzeko askatasuna sentitu behar dute, denen artean egoerari ahalik eta irtenbide egokiena emateko.
- Baliteke zenbait kasutan ikasle edo familia batzuek hezkuntzaz kanpoko erantzuna edo laguntza behar izatea. Kasu batzuetan, neurri terapeutikoak ere beharko dituzte

eta gizarte-zerbitzuek edo beste profesional batzuek parte hartuko dute. Hala izatekotan, agente guztien arteko elkarlana, koordinazioa eta informazio trukaketak etengabekoa izango da, ikaslearen jarraipen egoki eta zehatz bat izateko.

— Metodologia

Hezkuntzan, lantzen diren edukiak bezain garrantzitsuak dira hauek landu eta sustatzeko erabiltzen diren metodologiak. Ikasgeletan bizikidetza, elkartasuna eta baloreak sustatzeko, beharrezkoa da ondorengo puntuak aintzat hartzen dituen metodologia bat izatea:

- Irakasgai desberdinetako dinamika eta lan-erritmoa erabiltzea ikasleek barneratzea nahi diren baloreak sustatu, eztabaidatu eta lantzeko: elkartasuna eta adiskidetasuna bezalako baloreak esaterako, ikaskuntza kooperatiboaren bultzada eta erabileraren bidez sustatzeko bidean egongo dira.
- Elkartasuna eta lankidetzaren bultzatzen dituzten ikasteko teknikak eta estrategiak erabiltzea.
- Ikastetxeko nahiz ikasgelako espazioak eta denborak, iritziak eta elkarrizketak trukatzeko moduan antolatzea.
- Garrantzitsua da errutinak ezartzea, honela haurren distrakzioa gutxiagotuko da. Gainera, modu sekuentzian emango dira azalpenak eta denboraz emango da egingo diren jardueren berri.

— Edukiak

Elkarbizitza eta harremanekin zerikusia duten eduki eta gaitasunak landuko dira gelan ikasleekin. Haur Hezkuntzako ikasleak aurkitzen diren une ebolutiboak dela eta, argi dago eduki eta helburuak beren gaitasunetara moldatuak egongo direla. Gehienbat jarrerazko eta komunikazio gaitasunak garatzeko edukiak landuko dira modu zuzenean nahiz zeharka:

- Lortu nahi diren helburuei dagokionez, ikasleen gaitasunetara egokitutako helburuak ezarriko dira. Hauek ahalik eta modu argi eta zehatzenean azalduko dira gelan, denek ulertu eta barneratu ditzaten.
- Jokabide argi eta zehatzei dagozkien arau logiko eta koherenteak ezarriko dira, une ebolutiboarekin bat datozenak. Lan honetan, ikasleak inplikatu dira ahal den neurrian, beren beharretatik sortu daitezkeen eta beraienak sentitu ditzaten. Modu honetara, errazagoa zaie hauek ulertu eta barneratzea.

- Talde sena sustatu behar da ikasgelan, konfiantza giroa sumatu behar da taldekideen artean. Honetarako, taldekideak aurkeztu, ezagutu eta integratzeko teknikak eta jokoak eramango dira aurrera.
- Trebetasun sozial eta komunikatiboak garatzea helburu duten jarduera eta ekintzak diseinatuko dira. Garrantzitsua da hauek lehenestea behar bezalako garrantzia emanaz, bigarren maila batean utzi gabe. Hezkuntzak entzuteko eta hitz egiteko gaitasunak garatzen lagundu behar dio ikasleari, desberdintasunak kontuan izanik adostasuna bilatzeko jarduera bultzatu behar du.

Entzumen aktiboa sustatu behar da, hau da, besteari arretaz entzutea, epaitu gabe enpatizatuz eta haren lekuan jarriz. Komunikazio afektiboa garatzeko aukera ematen duten jokoak eta dinamikak jarriko dira martxan, bai eta entzute aktiboa eta enpatikoa, erabaki adostuak hartzen ikasteko.

- Adierazpen askatasuna sustatuko da. Errealitatea ulertzeko modu eta ikuspuntu desberdinak errespetatu eta onartzearen garrantzia transmititu behar zaie ikasleei, besteekiko eta bere buruarekiko errespetuaren oinarria izango baita.
- Haurrari bere burua kontrolatzen irakatsiko zaio, bere jarrera desegokiek besteak nola gogaitzen dituzten ikusaraziz. Modu berean, sentimendu negatiboak izatea normala dela ulertaraziko da, modu egoki eta errespetagarrian adierazten lagunduz.
- Beharrezkoa da gatazkei aurre egiteko modu egokiak eta eraginkorrak irakastea; komunikazioa suntsitzen duten jarrerak kontrolatzen irakatsi behar zaie ikasleei (irainak, mespretxuak...), entzuteko modu desegokiak saihesten irakatsi (keinuak eta gorputz-mugimendu desegokiak, informazioaren aukeraketa desegokia egitea komeni zaigunaren arabera...) eta egokiak transmititu. Ordura arte egoera hauen aurrean nola jokatu den aztertuko da denen artean eta denen beharrak asetuz adostasun batera iritsiko dira.

6. Ondorioak

Burutu den lanaren analisisa egin ostean atera diren ondorioak hauexek dira:

Hezkuntza funtsean harreman prozesu bat da, harremanetan du bere oinarria eta egitura. Hau honela, beharrezkoa da erlazio horiek egokiak eta kalitatezkoak izatea, hezkuntza-sistemaren helburuetako bat gaitasun sozial eta gizabidezkoak garatzea baita, elkarbizitzarako gaitasuna, alegia (236/2015 Dekretua, EAeko eskola-curriculumeko zeharkako oinarrizko gaitasuna). Lan honetarako egin den azterketan parte hartu duten irakasleak ere honen jakitun izanik, hezkuntzaren alderdi honi berebiziko garrantzia ematen diote, ikasleen hezkuntza prozesuaren erdigunean jarriz.

Haur Hezkuntzako ikasleen garapenean harremanek duten eragin zuzena argi geratu da: Hurbiltasun emozionalean oinarritutako harremanek, oro har, errendimendu akademiko hobea eta gizarte-gaitasun hoberrantz eramaten dute (Sabol eta Pianta, 2013). Jaso diren irakasleen testigantzek ere teoria hau berretsi dute. Gainera, haur hauen bizitzetan ematen diren harreman garrantzitsuenak eskola eta familia eremuan sortzen direla kontutan izanik, ezinbestekoa da denen arteko koordinazio eta elkarlana. Errealitatean ordea, esfortzua suposatzen duen lana denez, familia-ikastetxe arteko komunikazioa eta elkarlana ez da behar lukeen bezain aberatsa. Honegatik, hezkuntzak duen erronketako bat da alderdi honi heldu eta gauzatzea, hezkuntza kalitate eta bizikidetzara osasuntsu eta oparago bat lortzeko.

Harremanetan komunikazio gaitasunaren kalitatea funtsezko elementua dela baieztatu da. Heziberri 2020 planaren, "Oinarrizko Hezkuntzako Curriculum" txostenean Elkarbizitzarako kompetentziaren barnean aurkitzen den 1. Osagaien, ikasleak "norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adierazten jakin eta, aldi berean, besteren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak adi entzutea eta kontuan hartzeko gai izatea" lortzera iritsi behar duela adierazi da. Honen oinarrian egongo da irakasleak berak ere ikasleei zuzentzeko garaian tonua, diskurtsoaren argitasuna, keinu-hizkuntza zaindu eta enpatia azaltzea. Galdetegien erantzunetan ikusi da denek ere komunikazioaren kalitateari berebiziko garrantzia ematen diotela, eta beraz, bereziki irakasleak asko zaindu eta landu beharreko alderdia dela.

Hau honela, irakaslearen jarrera ere erabakiorra dela baieztatu da ikasleengan eragiterako garaian. 3 irakasleak adierazi duen bezala: "Eredu naiz besteen aurrean: errespetuz hitz egiten dudana ala ez, enpatia dudana besteekin, epaiketak egiten ditudana ala ez... Eredu on bat ematen saiatzen naiz." (2. Eranskina, 3 irakaslea). Eredu izateaz gain ordea, ikasle bakoitzaren osotasun, zoriontasun, garapen eta ongi izatearen inguruko interesa izan behar du irakasleak. Ikasle bakoitzari banakako arreta eskainiko dio, honengana hurbildu eta bere

ongizatearen inguruan arduratuko da bere alboan dagoela sentiaraziz. Ikusi den bezala, garrantzitsua da haurraren lehen urteetatik konfidantza edo gertutasuna sustatzea eta bere hezkuntza ibilbide osoan zehar jarraipena ematea. Aztertu den errealitatean, irakasleek adierazi dutenez, honek berebiziko garrantzia duela ikusi izan da, asko zaindu eta lantzen den alderdia baita.

Azken urteetan bizikidetza kontzeptuak hezkuntzan hartu duen indarra izugarria dela ere ikusi da. Honen inguruko hainbat lege, dekretu eta gida argitaratu dira nahiko berriki ikastetxeei bideraturik, eta beharrezkoa da hauek ezagutu eta betetzea. EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako berdinen arteko tratu txarren aurrean aplikatu beharreko jarduera-protokoloari buruzko Hezkuntza sailburuordearen 2016ko urtarrilaren 18ko Ebazpenaren IV. Puntuan xedatzen denez, “Ikastetxeek Elkarbizitza Planean prozedurak jasoko dituzte, berdinen arteko eskolako tratu txarreko kasuen aurrean hezkuntza-komunitatea kontzientziatzeko eta protokoloa ezagutarazteko.” (Eusko Jaurjaritza, 2016; 13.or.). Nahiz eta dekretuak hau esan, errealitatean irakasle guztiek aipatutako protokoloa ezagutzen ez dutela ikusi da. Eusko Jaurjaritzak kaleratutako “Eskola Jazarpen Kasuetan Ikastetxeetan Jarduteko Gida”-n adierazten den bezala: “Ikastetxeetako kasu gehienak Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean gertatzen badira ere, beste etapa batzuetako ikasleei eragiten dieten egoerak ere badaude, eta gida hau erabilgarri izan daiteke horrelakoetan ere.” (Eusko Jaurjaritza, 2015; 3.or.). Azken etapa hauen barnean sartzen da Haur Hezkuntzako aldia eta beraz, irakaslearen bete beharra da hau ezagutu eta behar denetan erabiltzeko gaitasuna izatea.

Ikastetxeko elkarbizitza arazoaren prebentzio, erantzun eta konponbiderantz bideratutako ekintzen artean dagoen Elkarbizitza Planaren garrantzia ere nabarmen geratu da lan honetan. Bertan ikastetxeak elkarbizitza positiboa sustatu eta ikasleak balio etiko eta sozial sendoetan hezteko jarduerak adostu eta garatzen laguntzeko informazioa biltzen da. Honetarako, ikastetxearen eta honen ingurunearen beharretara egokitzen den plan errealista sendoa diseinatuko da, ikasturtez-ikasturte baloratu eta moldatuko dena. Ikas-komunitatearen partaide den orok du honen diseinuan zer esana eta noski, ezagutza. Errealitatean ordea, ikas-komunitateko talde murrizt batek soilik duela honen ezagutza integrala ikusi da, egin den azterketaren kasuan, ikastetxeko Bizikidetza Taldeak soilik ezagutzen du. Gainera, 10 urteren buruan aldaketa txiki batzuk soilik egin zaizkion planak nekez erantzungo die gaur egun ikastetxeak bizi dituen errealitate eta beharrei. Gertaera hauek, ikastetxeko bizikidetzaren aldeko bidea oztopa dezaketela argi geratu da.

Elkarbizitza eta harremanekin zerikusia duten eduki eta gaitasunei dagokienean, Haur Hezkuntzan zeharka lantzen dira gehienbat, batez ere, ikasle-irakasle arteko harremanaren

jarduna baliatuz. Beharrezkoa da ordea konpetentzia hauei behar besteko denbora eta tarte eskaintzea gelan. Jarrerazko eta komunikazio gaitasunak garatzeko edukiak landuko dira nagusiki, modu zuzenean nahiz zeharka. Honetarako, elkartasuna eta lankidetzaren bultzatzen dituzten ikasteko teknikak eta estrategiak erabiliko dira, ikastetxeko nahiz ikasgelako espazioak eta denborak aintzat hartuz elkarriketa eta iritzi trukaketa erraztu dezaten.

Laburbilduz, beraz, lan honetan nahiz eta ikastetxeetan harremani eta elkarbizitzari garrantzia ematen zaien, oraindik ere landu eta hobetu beharreko alderdi asko daudela ondorioztatzen da. Bizitzarako ikasketarik baliagarriena pertsona bakoitzak bere buruarekiko eta beste pertsonarekiko harreman positibo bat lortzea da, hori baita hezkuntzaren ardatz nagusia: berdintasuna, elkartasuna, elkarrekiko errespetua eta indarkeriarik ezaren balioak. Hau ordea hezkuntza komunitateko parte diren guztien koordinazio, elkarlan, komunikazio egoki eta balore positiboaren bidez soilik lortuko da.

7. Mugak eta hobekuntza proposamenak

Lan honek muga desberdinak izan ditu garapen prozesuan zehar, batez ere atal enpirikoari dagokion alderdian. Lanaren norabidea zehazteko zailtasunek eta Covid-19 ak eragindako egoera ez ohikoak, guztiz baldintzatu dute honen noranzkoa.

Hasteko, azterketaren datu bilketa egiteko maiz erabili den eta esanguratsua den behaketa egiteko mugak aurkitu dira. Lanaren noranzkoa zehaztu denerako, Covid-19 ak eragindako itxialdiarekin batera ikastetxeko errealitatearen behaketa sistematizatu egiteko aukera galdu da. Hau honela, praktikaldi garaian egindako behaketa natural parte hartzaile informala erabili da. Lana gehiago osatzekotan beraz, behaketa sistematizatu egingo litzateke.

Jarraitzeko, lanak dituen helburuak kontutan izanik, komenigarria litzateke galdetegia irakasle kopuru handiago batek betetzea, testigantza edo errealitate gehiago ezagutzeko. Datu bilketa hori zabaltzeko beste ikastetxe batzuetara jotzea baloratu den arren, lanaren oinarrian praktikaldia buruturiko eta beraz, jada ezaguna den errealitatea egonik, lanaren norabidea aldatuko lukeela ikusita, Zizurkilgo Zubimusu Ikastolako irakasleetara mugatu da azterketa: tamalez Haur Hezkuntzako zikloan hiru soilik dituena. Hau honela, aberasgarria litzateke orain arte egin dena abiapuntutzat hartuz lanaren dimentsioak zabaltzeko eta ikastetxe eta irakasle desberdinen errealitatea ezagutzeko.

Honetaz gain, hezkuntza komunitatearen protagonista nagusi diren ikasleen testigantza biltzea ere lanari sendotasuna emateko modua da. Haur Hezkuntzako etapara ez ezik, beste etapetara ere zabaltzeko daitezke galdetegia lanaren edukiak aberastuz. Familien testigantzak ere bilduko litzateke beste begirada eta errealitate bat ezagutzeko.

Hau guztia eginda, interesgarria litzateke baita ere ikastetxearen egiazkotasuna ezagutzeko elkarbizitza eta harremanen inguruko eduki edo oinarriak biltzen dituzten dokumentuak analizatuz: esaterako, Bizikidetzaren Plana biltzen duen dokumentua. Honela, txosten hauetan biltzen dena eta ikastetxeak, irakasleek, ikasleek eta familiek bizi edo sentitzen duten errealitatearekin kontrastatzeko modua egongo litzateke.

Laburbilduz beraz, eskuartean dugun lana gehiago garatu eta luzatzeko aukera desberdinak aurkitzen dira, sakonketa, dokumentazio eta azterketa gehiago eskatzen dutena eta hezkuntzarentzat baliagarri izan daitezkeena.

8. Erreferentzia bibliografikoak

Alkaser, F., eta Vilén, U. (2019). Bullying en la escuela infantil, Ortega.Ruiz (koord.)-en, *Agresividad injustificada, bullying y violencia escolar* (129-163.orr). Madrid: Alianza.

Blatchford, P., Kutnick, P., Baines, E., eta Galton, M. (2003). Toward a social pedagogy of classroom group work. *International Journal of Educational Research*, 39, (153-172 orr.).

Blatchford, P., eta Kutnick, P. (2003). Developing group work in everyday classrooms: an introduction to the special issue. *International Journal of Educational Research*, 39, (1-7 orr.).

Córdoba, F., Del rey, R., eta Ortega-Ruiz, R. (2014). Convivencia escolar en España: una revisión histórico-conceptual. *Confluencia*, 2. (199-221 orr.).

Córdoba-Alcaide, F., eta Rodríguez-Hidalgo, A.J. (2018). La convivencia en educación infantil: ecología del centro y del aula. Hemen, Romera, E.V., Ortega-Ruiz, R. (Koord.). *Psicología de la educación infantil* (167-186 orr.). Bartzelona: GRAÓ

Díez Navarro, M.C. (2013). *10 ideas clave: La educación infantil*. Bartzelona: Graó.

Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Hizkuntza Politika eta Kultura saila. (2016). *Ikastetxearen Elkarbizitza Plana Egiteko Gida*. Hemendik eskuratua: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_convivencia/eu_def/adjuntos/6002016001e_Pub_EJ_elkarbizitza_plana_e_web_probisionala.pdf

Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Hizkuntza Politika eta Kultura saila. (2016). *Oinarrizko Hezkuntza Curriculuma. 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea*. Hemendik eskuratua: http://www.hezkuntza.eiqv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_proyec/adjuntos/OH_curriculum_osoia.pdf

Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Hizkuntza Politika eta Kultura saila. (2015). *Eskola Jazarpen Kasuetan Ikastetxeetan Jarduteko Gida*. Hemendik eskuratua: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_convivencia/eu_def/adjuntos/600022e_Pub_EJ_guia_acoso_escolar_2015_e.pdf

Galton, M. (2012). Grouping and group work. In C. Rogers eta P. Kutnick (Ed.) *The Social Psychology of the Primary School*, 2 (11-30 orr.). Londres: Routledge.

García, J.M. (2010). Hizkuntzak aztergai: ikerketa-metodoetara oinarritako hurbilpena. Eusko Media Fundazioa [Erabilgarria (2020/04)]: Eskuratua: www.euskomedia.org/aunamendi/ee152152/136266

Juaristi, P. (2003). Gizarte ikerketarako teknikak. Bilbo: EHU-UPV. Hemendik eskuratua: <https://web-argitalpena.adm.ehu.es/pdf/USWEB035407.pdf>

Kutnick, P., eta Blatchford, P.(2014). Groups and classrooms. *Effective group work in primary school classrooms*.(23-49 orr.). Dordecht (NL): Springer.

Kutnick, P., Sebba, J., Blatchford, P., Galton, M., eta Thorp, J. (2005). *The effects of pupil grouping: Literature review*. Londres: University of Brighton.

Ortega-Ruiz, R., Córdoba, F., Romera, E.M., eta del Rey, R.(2008). *10 ideas clave. Disciplina y gestión de la convivencia*. Barcelona: Graó.

Ortega-Ruiz, R., eta Monks, C. (2005). Agresividad injustificada entre preescolares. *Psicothema*, 17, (453-458 orr.). Córdoba: Universidad de Córdoba.

Rodríguez-Hidalgo, A.J., Calmaestra, J., eta Ortega-Ruiz, R. (2016). Discriminación y exclusión social: prevención y afrontamiento, hemen Córdoba, F., Ortega-Ruiz, R., eta Nail, O. (Ed.). *Gestión de la convivencia y afrontamiento de la conflictividad y el bullying*.(117-134 orr.). Santiago de Chile: RIL Editores.

Sabol, T.J., eta Pianta, R.C. (2013). Relationships between teachers and children, hemen Reynolds, W.M., eta Miller, G.E. (Ed.). *Handbook of Psychology. Educational Psychology*, 7. (199-211 orr.). Nueva Jersey: Wiley.

Squires, J., Pribble, L., Chen, C.I., eta Pomés, M. (2013). Early Childhood Education: Improving Outcomes for Young Children and Families, hemen Reynolds, W.M., eta Miller, G.E. (Ed.). *Handbook of Psychology. Educational Psychology*, 7 (233-256 orr.). Nueva Jersey: Wiley.

Wentzel, K.R. (2013). School Adjustment, hemen Reynolds, W.M., eta Miller, G.E. (Ed.). *Handbook of Psychology Educational Psychology*, 7 (213-231 orr.). Nueva Jersey: Wiley.

Eranskinak

1. Eranskina - Galdetegia

Betetzera zoazen galdetegiak izaera anonimoa duen arren, ondorengo datuak eduki ahal izatea eskertuko nuke irakasle batek erantzuna izan dela egiaztatzeko:

Adina:

Sexua:

Esperientzia urteak Haur Hezkuntzako irakasle moduan:

Hezkuntzako beste alorren batean egin al duzu lan ?

Hala bada, zertan?

Ondorengo galdetegian, hezkuntzan ematen diren harremanen, bizikidetzaren eta ikastetxeko Bizikidetzaren Planaren inguruko galderak aurkezten dira.

- 1) Zer nolako garrantzia dute harremanek hezkuntzan zure ustez?
- 2) Nola eragin dezakete harremanek zure ustetan haur baten garapenean?
- 3) Nola definituko zenuke *Bizikidetzaren* kontzeptua?
- 4) Zer nolako garrantzia ematen zaio zuen ikastetxean bizikidetzari?

- 5) Ba al duzue Bizikidetzaren Planik zuen ikastetxean?
 - a) Noiz diseinatua da plan hau?
 - b) Nortzuk diseinatu edo diseinatzen dute Bizikidetzaren Plana?
 - c) Urte askoz erabili da Bizikidetzaren Plan berbera, edo moldaketak jasaten ditu urtez-urte?
 - Moldaketak egitekotan:
 - a. Zeren arabera egiten dira?
 - b. Nortzuk hartzen dute parte honen moldaketan?
- 6) Lantzen al da plan hau biltzen duen dokumentua irakasleekin, hala beharra sortzen denean soilik erabili edo lantzen da?
- 7) Eta ikasleekin?
- 8) Zer biltzen du Bizikidetzaren Planak?
- 9) Ba al duzu bertan esaten denaren berri?
- 10) Ikas komunitatearen parte den orok ezagutzen al du bertan esaten dena?

- 11) Plan hau eraginkorra dela uste al duzu?
- 12) Zure ustetan, Ikastetxearen errealitatearekin bat datorren plan bat da?
- 13) Zure ustetan, zer da Bizikidetza Plan on bat? Zeintzuk dira bere helburuak?
- 14) Nola eratu beharko litzateke plan hau? Zeintzuk izan beharko lukete partaide lan honetan?
- 15) Lantzen al da bizikidetza gelan?
- Erantzuna baiezkoa bada,
- a. Nola? Modu zuzenean edo zeharka?
 - b. Une zehatz batean burutzen diren jarduera zehatzak al dira? Zeintzuk adibidez?
 - c. Zergatik?
- Erantzuna ezezkoa bada,
- d. Zergatik ez?
- 16) Zein garrantzia maila du zuretzat elkarbizitzak hezkuntzan? Garrantzitsua dela uste al duzu? Zergatik?
- 17) Nola sustatuko zenuke edo sustatzen duzu elkarbizitza egoki bat?
- 18) Eta harreman osasuntsuak?
- 19) Zer nolako eragina izan dezake irakaslearen jarrerak elkarbizitzan?
- 20) Eta harreman osasuntsuak eratzerako garaian?
- 21) Komunikazio eta trebetasun sozialek zer nolako garrantzia dute zuretzat?
- 22) Aipatutako guztiak, zer nolako lekua duela iruditzen zaizu Haur Hezkuntzan?
- 23) Familiek zer nolako eragina edo zer esana dutela uste duzu ikastetxe bateko elkarbizitzan?
- 24) Hitz egiten al zaie eskolako bizikidetzaren inguruan familiei?
- 25) Ikasle batek harremantzeko zailtasunak dituela jabetzen zara. Berak ordea besteekin harremantzeko nahia azaltzen du, zer egingo zenuke egoera horren aurrean?
- 26) Elkarbizitza urratzen duten jarrerak azaltzen ditu ikasle batek sarritan, ohikoa baina gehiagotan. Zer egingo zenuke egoera horren aurrean?
- 27) Ikastetxe bateko irakasle bezala, egoera hauei emango zaien erantzuna norberaren esku egongo da, hala irakasle guztien partetik berbera izango da?
- 28) Ikastetxean elkarbizitza arazoak atzematen badira, zer egiten da?

29) Ezagutzen al duzu berdinen arteko tratatu txarren aurrean aplikatu beharreko jardueraprotokoloa?

Hala bada:

a) Zer iritzi duzu honen inguruan?

30) Bukatzeko, zer uste duzu aurkitzen dela elkarbizitza egoki baten oinarrian? Zer faktore izan beharko genituzke kontutan?

Honaino galdetegia. Mila esker zure parte hartze eta laguntzagatik.

2. Eranskina - Galdetegiaren erantzunak

1 Galdetegia / 1 Irakaslea

Betetzera zoazen galdetegiak izaera anonimoa duen arren, ondorengo datuak eduki ahal izatea eskertuko nuke irakasle batek erantzuna izan dela egiaztatzeko:

Adina: 38

Sexua: Emakumea

Esperientzia urteak Hau Hezkuntzako irakasle moduan: 10 urte

Hezkuntzako beste alorren batean egin al duzu lan ? Bai

Hala bada, zertan? 10 urte hauetatik 8, 0-2 etapan aritu naiz lanean hezitzaile moduan.

Ondorengo galdetegian, hezkuntzan ematen diren harremanen, bizikidetzaren eta ikastetxeko Bizikidetzaren Planaren inguruko galderak aurkezten dira.

1) Zer nolako garrantzia dute harremanek hezkuntzan zure ustez?

Harremanak, ezinbesteko oinarri moduan ulertzen ditut bai hezkuntza munduan eta baita gainerako alorretan ere.

2) Nola eragin dezakete harremanek zure ustetan haur baten garapenean?

Haur batekin daukagun harreman motaren arabera, garapenean eragin zuzena duela uste dut. Errespetu eta konfiantzazko harreman batek, segurtasuna eta bere buruarekiko konfiantza garatzen lagunduko dio. Ulertua sentitzen bada, gai dela eta bere kabuz frogak egiteko interesa izango du.

Zigor, begirada txarrak, komunikazio bortitza... oinarri duen harreman batean, haurra ez da seguru sentituko, honek bere buruagan konfiantza gutxi garatzea ekarriko du.

Harremanek eta elkarbizitzak garapenearen alor guztietan dauka eragin zuzena.

3) Nola definituko zenuke *Bizikidetzaren* kontzeptua?

Elkar errespetatu, onartu, eta ulertzeko gai izatea, elkarbizitza oparo eta emankor bat ziurtatzeko.

4) Zer nolako garrantzia ematen zaio zuen ikastetxean bizikidetzari?

Daukan eragina kontuan izanda, garrantzia ematen zaio.

5) Ba al duzue Bizikidetzaren Planik zuen ikastetxean?

a) Noiz diseinatua da plan hau?

b) Nortzuk diseinatu edo diseinatzen dute Bizikidetzaren Plana?

c) Urte askoz erabili da Bizikidetzaren Plan berbera, edo moldaketak jasaten ditu urtez-urte?

Moldaketak egitekotan:

a. Zeren arabera egiten dira?

b. Nortzuk hartzen dute parte honen moldaketan?

6) Lantzen al da plan hau biltzen duen dokumentua irakasleekin, hala beharra sortzen denean soilik erabili edo lantzen da?

7) Eta ikasleekin?

8) Zer biltzen du Bizikidetzaren Planak?

9) Ba al duzu bertan esaten denaren berri?

10) Ikas komunitatearen parte den orok ezagutzen al du bertan esaten dena?

11) Plan hau eraginkorra dela uste al duzu?

12) Zure ustetan, Ikastetxearen errealitatearekin bat datorren plan bat da?

13) Zure ustetan, zer da Bizikidetzaren Plan on bat? Zeintzuk dira bere helburuak?

Ikastolako komunitatea osatzen dugun guztion arteko harreman egokiak sustatzeko plan bat da.

14) Nola eratu beharko litzateke plan hau? Zeintzuk izan beharko lukete partaide lan honetan?

Ikastolako errealitateari erantzunez, eratu beharko litzateke plan hau (honen inguruko hausnarketa bat egin). Etapa ezberdinetako pertsonak hartu beharko lukete parte. Familiek eta ikasleek ere parte izan beharko lukete.

15) Lantzen al da bizikidetza gelan? Bai

Erantzuna baiezkoa bada,

a. Nola? Modu zuzenean edo zeharka?

Egunerokotasunean, harremanak errespetuzkoak izan daitezen saiatzen gara, guztion arteko harreman egokia sustatzeko.

b. Une zehatz batean burutzen diren jarduera zehatzak al dira? Zeintzuk adibidez?

c. Zergatik?

Erantzuna ezezkoa bada,

d. Zergatik ez?

16) Zein garrantzia maila du zuretzat elkarbizitzak hezkuntzan? Garrantzitsua dela uste al duzu? Zergatik?

Elkarbizitzak garrantzia izugarria duela uste dut. Elkarbizitza hau nolakoa denaren ondorioz sortuko dira harremanak egiteko moduak, elkar ulertzeko moduak, errespetuz jokatzeko moduak... Hau dela eta, elkarbizitza egoki baterako oinarriak sortu behar ditugu, irakasle bezala dugun gauzak egiteko eta adierazteko moduak eragin zuzena duela konturatuz.

17) Nola sustatuko zenuke edo sustatzen duzu elkarbizitza egoki bat?

Denak desberdinak garela eta bakoitzak bere jokatzeko modua duela onartu behar da lehenengo. Hau onartu eta errespetatu behar dugu, elkarbizitza egoki bat sustatzeko. Familia, irakasle edo ikasle bakoitza ezberdina da, enpatiaz jokatzeko garrantzitsua ikusten dut. Elkarlanerako eta laguntasunezko jarrerak eraman behar ditugu aurrera.

18) Eta harreman osasuntsuak?

Modu berean, epaitu gabe bestea ulertzeko saiakera eginez.

19) Zer nolako eragina izan dezake irakaslearen jarrerak elkarbizitzan?

Eragin izugarria izan dezakeela uste dut. Irakaslea, gainerako irakasle taldearekin, familiekin eta ikasleekin harreman zuzenean egoten da eta berak daukan jarrerak zuzeneko eragina du elkarbizitzan.

20) Eta harreman osasuntsuak eratzerako garaian?

Gauza bera gertatzen da.

21) Komunikazio eta trebetasun sozialek zer nolako garrantzia dute zuretzat?

Komunikatzeko moduak eta trebetasun sozialek garrantzi izugarria dute. Gauzak esateko modua zaintzea ezinbestekoa iruditzen zait, zaindu egin behar da zer eta nola esan behar den.

Trebetasun batzuk ere landu behar dira, enpatiaz hitz egitea esaterako.

22) Aipatutako guztiak, zer nolako lekua duela iruditzen zaizu Haur Hezkuntzan?

Leku garrantzitsua du. Txikitatik hartuko baitituzte harremanak sortzeko eta elkarbizitzarako oinarriak. Ikusiz eta entzunez jasotzen dutenak eragin zuzena du beraiengan, beraz, esandako guztia kontuan hartzea ezinbestekoa ikusten dut.

23) Familiek zer nolako eragina edo zer esana dutela uste duzu ikastetxe bateko elkarbizitzan?

Familiak ere ikastolako kide direnez zer esana badutela iruditzen zait. Denborarekin gai honi sakonago heldu beharko zaio agian.

24) Hitz egiten al zaie eskolako bizikidetzaren inguruan familieiei?

25) Ikasle batek harremantzeko zailtasunak dituela jabetzen zara. Berak ordea besteekin harremantzeko nahia azaltzen du, zer egingo zenuke egoera horren aurrean?

Lehenik eta behin, egoera aztertu beharko litzateke, askotan errepikatzen den edo ez, zein egoeratan gertatzen den, ze haur taldetan gertatzen den...

Gurasoekin hizketaldi bat egingo nuke etxean ere gertatzen ote den, aldaketaren bat izan ote duen... jakiteko.

Behin azterketa hau eginda eta egoera identifikatuta edukita, momentu horretan lagungarri izan litekeena aldatzen saiatuko nintzateke egoera hori sortzen den haur taldearekin. Gero baloratu eta behar diren aldaketak pentsatu egoera hobetu dadin.

26) Elkarbizitza urratzen duten jarrerak azaltzen ditu ikasle batek sarritan, ohikoa baina gehiagotan. Zer egingo zenuke egoera horren aurrean?

Aurreko kasuan bezala, lehenik eta behin egoera aztertu beharko litzateke.

Gurasoekin ere hitz egingo nuke haur horren jarrera nondik datorren hobeto ulertu ahal izateko.

Neurri batzuk hartu beharko lirateke ondoren, agian berarekin denbora gehiago pasatzea nahikoa da. Errespetuz, baino muga batzuk argi zehaztu beharko genizkioke.

Egoera eta aldaketak baloratu beharko genituzke etengabe.

27) Ikastetxe bateko irakasle bezala, egoera hauei emango zaien erantzuna norberaren esku egongo da, hala irakasle guztien partetik berbera izango da?

Nik uste dut lan talde bat garela eta gure kasuan behintzat haurrak elkarrekin egoten direnez, irakasle guztiok berdin jokatu behar dugula. Jarraitu beharreko pausuak eta moduak taldean erabaki beharko dutugu eta modu berean aurrera eramán.

28) Ikastetxean elkarbizitza arazoak atzematen badira, zer egiten da?

Irakasle taldean hausnartzen da egoera lehenengo eta konponbide bat bilatzen saiatu. Gurasoekin hitz egitea da hurrengo pausua egoera baretzen ez bada, jarrera horren arrazoiak bilatzeko helburuz.

Arazoak jarraitzen badu HHko koordinatzailearekin landu beharko litzateke gaia eta azken urrats bezala KIVA taldekoekin.

29) Ezagutzen al duzu berdinen arteko tratu txarren aurrean aplikatu beharreko jardueraprotokoloa?

Hala bada:

a) Zer iritzi duzu honen inguruan?

30) Bukatzeko, zer uste duzu aurkitzen dela elkarbizitza egoki baten oinarrian? Zer faktore izan beharko genituzke kontutan?

Errespetua eta bestea ulertzea ikusten dut oinarrian, denok baikara ezberdinak. Taldean lan egitea eta taldeko parte garela sentitzea.

Honaino galdetegia. Mila esker zure parte hartze eta laguntzagatik.

2 Galdetegia / 2 Irakaslea

Betetzera zoazen galdetegiak izaera anonimoa duen arren, ondorengo datuak eduki ahal izatea eskertuko nuke irakasle batek erantzuna izan dela egiaztatzeko:

Adina: 35 urte

Sexua: emakumea

Esperientzia urteak Hau Hezkuntzako irakasle moduan: 4 urte

Hezkuntzako beste alorren batean egin al duzu lan ? ez

Hala bada, zertan?

Ondorengo galdetegian, hezkuntzan ematen diren harremanen, bizikidetzaren eta ikastetxeko Bizikidetzaren Planaren inguruko galderak aurkezten dira.

- 31) Zer nolako garrantzia dute harremanek hezkuntzan zure ustez? Nire ustez harremanek izugarrizko garrantzia dute hezkuntzan. Berdinkideen arteko harremana, heldua eta haurren artekoa, eskola eta familien arteko harremana... konfiantzazko harremanak, elkarlaneko harremanak, errespetuzko harremanak izan behar dutela uste dut.
- 32) Nola eragin dezakete harremanek zure ustetan haur baten garapenean? Haurra jaiotzen den momentu beretik eraikitzen duen loturak edo harremanak eragina izango du bere garapenean. Hau da, bere amarekin duen lotura horrek haur horrengan eragina izango du. Hori izango da bere garapena baldintzatu edo eragingo duen lehen harremana. Harreman batek nola eragin dezakeen esatea zaila iruditzen zait, baina bai honek haurren garapena baldintzatu dezakeela. Nolako harreman motak izaten saiatu beharko genuke esan dezaket: errespetuan oinarrituak beti, harreman positiboak, konfiantzazkoak, enpatia dagoen harremana,...
- 33) Nola definituko zenuke *Bizikidetzaren* kontzeptua? Gizarte harremanak zaintzen dituen elkarbizitza, errespetuan oinarritzen dena.
- 34) Zer nolako garrantzia ematen zaio zuen ikastetxean bizikidetzari? Kiva Proiektua martxan dagoela badakit.
- 35) Ba al duzue Bizikidetzaren Planik zuen ikastetxean? Egongo da noski, baina nik ez dut dokumentu hori.
 - a) Noiz diseinatua da plan hau?
 - b) Nortzuk diseinatu edo diseinatzen dute Bizikidetzaren Plana?
 - c) Urte askoz erabili da Bizikidetzaren Plan berbera, edo moldaketak jasaten ditu urtez-urte?

Moldaketak egitekotan:

- a. Zeren arabera egiten dira?
- b. Nortzuk hartzen dute parte honen moldaketan?

36) Lantzen al da plan hau biltzen duen dokumentua irakasleekin, hala beharra sortzen denean soilik erabili edo lantzen da?

37) Eta ikasleekin?

38) Zer biltzen du Bizikidetza Planak?

39) Ba al duzu bertan esaten denaren berri?

40) Ikas komunitatearen parte den orok ezagutzen al du bertan esaten dena? Ba egia esan ez.

41) Plan hau eraginkorra dela uste al duzu?

42) Zure ustetan, Ikastetxearen errealitatearekin bat datorren plan bat da?

43) Zure ustetan, zer da Bizikidetza Plan on bat? Zeintzuk dira bere helburuak?

44) Nola eratu beharko litzateke plan hau? Zeintzuk izan beharko lukete partaide lan honetan?

45) Lantzen al da bizikidetza gelan?

Erantzuna baiezkoa bada,

- a. Nola? Modu zuzenean edo zeharka? Errespetuan oinarritzen diren ikasleen arteko harremanak sustatzen saiatzen gara. Batzuetan modu zuzenean, besteetan aldiz, zeharka. Egoerak horrela eskatzen badu, zuzeneko interbentzioa egiten da.
- b. Une zehatz batean burutzen diren jarduera zehatzak al dira? Zeintzuk adibidez? Taldeko lana edo talde kohesioa sustatzen dituzten jarduerak planteatu daitezke, kooperazioa beharrezkoa izango duten jarduerak, adibidez. Desberdintasuna eta aniztasuna onartzen eta errespetatzen ikasten laguntzen dituzten jarduerak ere. Emozioen kudeaketa, autoestimua eta besteekiko errespetua lantzeko jarduerak.
- c. Zergatik? Elkarbizitzarako harreman positiboak sendotzen laguntzeko.

Erantzuna ezezkoa bada,

- d. Zergatik ez?

46) Zein garrantzia maila du zuretzat elkarbizitzak hezkuntzan? Garrantzitsua dela uste al duzu? Zergatik? Oso garrantzitsua iruditzen zait elkarbizitza hezkuntzan. Horren alde lan handia egin behar da egunerokotasunean.

- 47) Nola sustatuko zenuke edo sustatzen duzu elkarbizitza egoki bat? Kooperazioa sustatuz, talde lana, talde kohesioa, besteekiko eta nork bere buruarekiko errespetua sustatuz, emozioen kudeaketa landuz, enpatia landuz, gatazken konponbideak landuz, etab.
- 48) Eta harreman osasuntsuak? Harreman osasuntsuak errespetuan oinarritzen direnak dira, nire ustez. Horretarako, aipatu berri dudana sustatuz egingo nuke.
- 49) Zer nolako eragina izan dezake irakaslearen jarrerak elkarbizitzan? Irakaslea ikasleentzat eredu da, beraz, bere jarrerak eragina izango du ikasleengan, baita elkarbizitzan ere.
- 50) Eta harreman osasuntsuak eratzeko garaian? Bere papera ere garrantzitsua izango da harreman osasuntsuak eratzeko garaian. Taldea ondo ezagutu beharko du, eta ikasleen arteko harremanei adi erreparatu beharko die. Harreman osasuntsuak lortzea izan beharko litzateke gure helburuetako bat, eta hori buruan izan beharko genuke une oro, jarduerak prestatzeko garaian, egunerokotasunean, etab.
- 51) Komunikazio eta trebetasun sozialek zer nolako garrantzia dute zuretzat? Berebiziko garrantzia dute. Gizakiok taldean bizitzeko eta bizirauteko jaiotzen gara, eta eskolak umeak horretan trebatu behar ditu.
- 52) Aipatutako guztiak, zer nolako lekua duela iruditzen zaizu Haur Hezkuntzan? Haur Hezkuntzako Etapan hasten dira umeak sozializatzen, taldeko parte izaten, harremanak eraikitzen, berdinkideak kontuan hartzen, hauek ezagutzen, beraz, etapako urte hauek ere berebiziko garrantzia izango dute haurren trebetasun sozialak garatzen laguntzeko. Elkarbizitzaren oinarriak finkatzen hasteko.
- 53) Familiak zer nolako eragina edo zer esana dutela uste duzu ikastetxe bateko elkarbizitzan? Noski. Familiak beti du zer esana, baita ikastetxeko elkarbizitzan inguruan ere.
- 54) Hitz egiten al zaie eskolako bizikidetzaren inguruan familiei? Ba egia esan ez dakit ziur.
- 55) Ikasle batek harremantzeko zailtasunak dituela jabetzen zara. Berak ordea besteekin harremantzeko nahia azaltzen du, zer egingo zenuke egoera horren aurrean? Besteekin harremantzeko egoerak sustatuko ditut. Zailtasunei, ekintzei hitza jartzen saiatuko naiz, adibidez, "bai, beste horrekin jolastu nahi duzu, gogo handia duzula ikusten dut" Besteei gauza bera esango nieke. Beraien arteko harremana sendotzen dituzten egoerak

sustatuko nituzke. Talde harremana, talde kohesioa, emozioen kudeaketa, besteekiko errespetua...

- 56) Elkarbizitza urratzen duten jarrerak azaltzen ditu ikasle batek sarritan, ohikoa baina gehiagotan. Zer egingo zenuke egoera horren aurrean? Egiten duen horri ere hitza jarriko nioke. Egiten duena deskribatuz, sortzen duena erakutsiz.
- 57) Ikastetxe bateko irakasle bezala, egoera hauei emango zaien erantzuna norberaren esku egongo da, hala irakasle guztien partetik berbera izango da? Nahiz eta gelan irakaslea bakarrik egon, erantzuna irakasle taldeak diseinatu beharko lukeela uste dut. Horretan, Elkarbizitza Planak laguntzen du.
- 58) Ikastetxean elkarbizitza arazoak atzematen badira, zer egiten da? Lehenik eta behin, irakasle taldean hitz egin, eta ondoren, hartutako erabakia helaraziko zaio egokitzen zaion pertsonari.
- 59) Ezagutzen al duzu berdinen arteko tratu txarren aurrean aplikatu beharreko jardueraprotokoloa? Ez dut ezagutzen protokoloa, egia esateko.
- Hala bada:
- a) Zer iritzi duzu honen inguruan?
- 60) Bukatzeko, zer uste duzu aurkitzen dela elkarbizitza egoki baten oinarrian? Zer faktore izan beharko genituzke kontutan? Errespetuan oinarritutako harreman sozialak.

Honaino galdetegia. Mila esker zure parte hartze eta laguntzagatik.

3 galdetegia /3 Irakaslea

Betetzera zoazen galdetegiak izaera anonimoa duen arren, ondorengo datuak eduki ahal izatea eskertuko nuke irakasle batek erantzuna izan dela egiaztatzeko:

- Adina: 38
- Sexua: EMAKUMEA
- Esperientzia urteak Hau Hezkuntzako irakasle moduan: 17
- Hezkuntzako beste alorren batean egin al duzu lan ? BAI
- Hala bada, zertan? LH 1. zikloan, Hizkuntza Proiektuko arduraduna, Ikasle Etorrinekin euskara errefortzuko irakasle.

Ondorengo galdetegian, hezkuntzan ematen diren harremanen, bizikidetzaren eta ikastetxeko Bizikidetzaren Planaren inguruko galderak aurkezten dira.

1) Zer nolako garrantzia dute harremanek hezkuntzan zure ustez?

Hezkuntza bera harremana da. Harremanen bitartez garatzen gara pertsonak. Harremanen nolakotasunak eragin handia du pertsonen garapenean. Beraz, garrantzizkoak eta ezinbestekoak hezkuntzan.

2) Nola eragin dezakete harremanek zure ustetan haur baten garapenean? Harremanen nolakotasunak eragina dauka pertsonaren garapenean. Gainera, garapenaren alderdi ezberdinetan eragiten du. Adibidez, besteekin izaten diren harreman motaren arabera, harreman hauek eragina izango dute pertsona horrek bere buruaz duen autokontzeptuan eta autoestimuan.

Era berean, besteekin elkarreraginean ikasi egiten da, ezagutza eraikitzen da. Besteekin ari garenean ikuspuntu desberdinak daudela ohartzen gara eta honek bakoitzaren ikuspuntua aberastu egiten du.

Hizkuntzaren garapenean ere, elkarreraginak garrantzia dauka, hizkuntza bera elkarrekintzan ikasten baita.

Talde batean harreman osasuntsuak eta giro egoki batek ikasleen ikaskuntzan positiboki eragiten du. Gelako giro egokia faktore garrantzitsua da haurren ikaskuntza prozesuan. Beldurrak edo giro ezkorrak blokeatu egiten du.

3) Nola definituko zenuke *Bizikidetza* kontzeptua?

Elkarrekin errespetuz eta enpatiaz bizitzen jakitea.

4) Zer nolako garrantzia ematen zaio zuen ikastetxean bizikidetzari?

Garrantzia badu. Badakigulako bizikidetza on batek positiboki ikastolako bizitzan eragiten duela. Ez soilik ikasleei begira, baita langileei eta familiei begira ere. Halere, oraindik bide luzea dugu egiteko. Azken urteetan ikasleetan zentratu gara. DBH eta LHko ikasleen lantzeko KIVA proiektua dugu eta honetan ari gara azken urte hauetan.

5) Ba al duzue Bizikidetza Planik zuen ikastetxean? Bai

a) Noiz diseinatua da plan hau? 10 bat urte

b) Nortzuk diseinatu edo diseinatzen dute Bizikidetza Plana? Bizikidetza taldeak. Talde honetan DBHko eta LHko ordezkariak daude.

c) Urte askoz erabili da Bizikidetza Plan berbera, edo moldaketak jasaten ditu urtez-urte? Urtero aldaketa txikiak egiten dira.

Moldaketak egitekotan:

a. Zeren arabera egiten dira? Beharren arabera. Ikusten bada irakasleek formazioa behar dutela, formazioa bideratzen da. Gelako giroa hobetzeko dinamikak egiten dira...

b. Nortzuk hartzen dute parte honen moldaketan? Bizikidetza taldeak.

6) Lantzen al da plan hau biltzen duen dokumentua irakasleekin, hala beharra sortzen denean soilik erabili edo lantzen da?

Beharra sortzen denean soilik

7) Eta ikasleekin?

Ikasleei ez zaie plana azaltzen.

8) Zer biltzen du Bizikidetza Planak?

9) Ba al duzu bertan esaten denaren berri?

Bertan jasotzen denaren berri ez daukat. Planean jasotako alderdiren batek eragina badu HHko etapari begira, alderdi hori azaltzen digute, baina, ez plana bere osotasunean.

10) Ikas komunitatearen parte den orok ezagutzen al du bertan esaten dena?

Ez.

11) Plan hau eraginkorra dela uste al duzu?

Nik uste dut neurri batean baietz. Planean jasotako ekintza asko aurrera eramaten direla badakit. Agian ez hainbeste HHko etapan, baina, bai gainontzeko etapetan. Golden 5 eta Kiva-ren inguruan azalpenak ikasturtero azaltzen dizkigute. Hala ere, plana bere osotasunean ezagutzeak duen dimentsioa ulertzen lagundu egingo lukeela uste dut.

12) Zure ustetan, Ikastetxearen errealitatearekin bat datorren plan bat da?

Nik uste dut ikastolaren errealitateari erantzuten diola neurri batean, batik bat, ikasleen atalari dagokiona.

13) Zure ustetan, zer da Bizikidetza Plan on bat? Zeintzuk dira bere helburuak?

Elkarbizitza on baterako alderdiak zeintzuk diren identifikatuta eta planean landuta izan behar ditu. Ikastolaren errealitateari erantzun beharko lioke. Horretarako, diagnosi on bat ezinbestekoa dela iruditzen zait. Helburu nagusia litzateke ikastola atsegin bat izatea, ikastola osatzen dugun norbanako guztiok tokia izatea bertan eta errespetatuak eta ulertuak izatea.

14) Nola eratu beharko litzateke plan hau? Zeintzuk izan beharko lukete partaide lan honetan?

- Ikastolako errealitatea ezagutu.
- Dauden beharrak identifikatu.
- Behar horiei erantzuteko ekintzak zehaztu.
- Egiten dena eraginkorra den neurtu.
- Etapetako ordezkarietz gain, interesgarria litzateke familiek eta ikasleek ere plan honen diseinuan parte hartzea.

15) Lantzen al da bizikidetza gelan? Bai

Erantzuna baiezkoa bada,

- a. Nola? Modu zuzenean edo zeharka?

HHn, LHn eta DBHn elkarrekin bizitzen ikastea zeharka lantzen den oinarrizko konpetentzietako bat da, bizitzan konpetente izateko oinarrizkoa. Egunerokotasunean lantzen dugun konpetentzia da hori, landu beharrekoa eta neurtu beharrekoa. HHn batik bat zeharka lantzen dugu, baina, LH eta DBHn zeharka lantzeaz gain, zuzenean ere lantzen da. Bi etapa hauetan kooperatiboki ere aritzen dira ikasleak elkarrekin.

- b. Une zehatz batean burutzen diren jarduera zehatzak al dira? Zeintzuk adibidez?

- c. Zergatik?

Erantzuna ezezkoa bada,

- d. Zergatik ez?

16) Zein garrantzia maila du zuretzat elkarbizitzak hezkuntzan? Garrantzitsua dela uste al duzu? Zergatik? Elkarrekin bizitzen ikasi konpetentzia erabat loturik dago elkarbizitzarekin. Bizitzan zehar ikasleari sortuko zaizkion egoerei aurre egiteko, gizartean besteekin bizitzeko, besteekin lan egiteko ... beharrezkoa elkarrekin ondo bizitzen jakitea. Gainera, hasieran aipatu dudan bezala, pertsonaren garapena erabat loturik dago besteekin dituen harremanekin eta hauen nolakotasunak eragina izango du garapen horretan. Beraz, garrantzizkoa da elkar bizitza osasuntsu bat.

17) Nola sustatuko zenuke edo sustatzen duzu elkarbizitza egoki bat?

Irakasle roletik hasita. Eredu naiz besteen aurrean: errespetuz hitz egiten dudana ala ez, enpatia dudana besteekin, epaiketak egiten ditudana ala ez... Eredu on bat ematen saiatzen naiz. Elkarrekin positiboki bizitzen ikasi egiten da eta landu egiten da. Honetaz kontziente izatea garrantzitsua iruditzen zait eta egunerokotasunean horretan saiatzen naiz ikasleekin. Batetik, beraiekin dudana bakarkako harremanetan eta, baita ere, ikasleek euren artean duten harremanetan. Familiekin lan egitea ere ezinbestekoa iruditzen zait.

18) Eta harreman osasuntsuak?

Aurreko galderan esan dudana bezala.

19) Zer nolako eragina izan dezake irakaslearen jarrerak elkarbizitzan?

Ikaragarria. Zer nolako eredu den besteentzat, gatazkak nola kudeatzen dituen ... ikasleekin, familiekin, lankideekin.

20) Eta harreman osasuntsuak eratzerako garaian?

Aurreko galderan erantzun dudana.

21) Komunikazio eta trebetasun sozialek zer nolako garrantzia dute zuretzat?

Nola komunikatzen garen klabea da. Komunikatzeko modua enpatikoa da? Jartzen al naiz besteen tokian? ... Komunikazio ez bortitza erabiltzea lagungarria da elkarbizitza sano baterako.

22) Aipatutako guztiak, zer nolako lekua duela iruditzen zaizu Haur Hezkuntzan?

Ba handia. Helduak duen rola haurren garapenean oinarrietako bat da. Heldu honek jakin behar du errespetuz komunikatzen. Eredu baita. Eta komunikazio moduak ikasi egiten dira. Gatazkak kudeatzen jakitea ere garrantzitsua iruditzen zait, bai ikasleen artekoak baina, baita, langile eta gurasoen artekoak ere.

23) Familiek zer nolako eragina edo zer esana dutela uste duzu ikastetxe bateko elkarbizitzan?

Hezkuntza komunitateko partaide diren momentutik eta haurren garapenean duen eraginagatik handia.

24) Hitz egiten al zaie eskolako bizikidetzaren inguruan familieei?

Kivaren inguruan urtero ematen zaizkie azalpenak LHn eta DBHn. Baina, nik uste dut presentzia handiagoa izan beharko luketela. Adibidez, bizikidetza taldean parte hartuz.

25) Ikasle batek harremantzeko zailtasunak dituela jabetzen zara. Berak ordea besteekin harremantzeko nahia azaltzen du, zer egingo zenuke egoera horren aurrean?

Lehenik egoera guztia aztertu beharko nuke. Informazioa jasoko nuke:

- Ikusi beharko nuke zergatik dituen zailtasunak harremantzeko.

- Zein egoeratan sortzen diren zailtasun horiek. Egoerak errepikatzen diren (patroi bat dagoen).
- Taldearen izaera ikusi beharko nuke: liderraren jarrera ...
- Familiarekin hitz egingo nuke: ea etxean aldaketarik... baden, ikastolatik kanpo ere harremantzeko zailtasunak dituen ...

Pentsatuko nuke nola egin harreman sano bat egoteko haurren artean:

- Agian, zailtasunak dituen haurrari pautak emango nizkioke.
- Dinamikak sortu harreman arrakastatsu bat egon dadin.
- Agian, beste haurren familiaren batekin hitz egin beharko nuke

26) Elkarbizitza urratzen duten jarrerak azaltzen ditu ikasle batek sarritan, ohikoa baina gehiagotan. Zer egingo zenuke egoera horren aurrean?

- Aztertuko nuke zein egoeretan ematen den jarrera hori.
- Zergatia bilatzen saiatuko nintzateke. Ulertzen (agian, etxeko giroak eragin dezake, gertaeraren bat, gabeziren bat...).
- Familiarekin hitz egingo nuke. Lanketa egingo nuke.
- Dinamikak sortuko nituzke, egoera batzuk agian ekidingo nituzke.

27) Ikastetxe bateko irakasle bezala, egoera hauei emango zaien erantzuna norberaren esku egongo da, hala irakasle guztien partetik berbera izango da?

Nik uste dut sintonia bat egon behar duela irakasle guztien artean. Azken urteetan horretan ari gara, lanketa hori egiten.

28) Ikastetxean elkarbizitza arazoak atzematen badira, zer egiten da?

Haur Hezkuntzan hasieran tutorea bera saiatzen da erantzun bat ematen, familiarekin lankidetzan. Tutorea laguntza beharrean aurkitzen bada, etapan eta koordinatzailearekin lanketa egiten da. Arazoa larria bada, KIVA taldearekin kontsultatzen da.

29) Ezagutzen al duzu berdinen arteko tratu txarren aurrean aplikatu beharreko jardueraprotokoloa?

Bai.

Kiva taldera jotzen dugu arazoa larria izanez gero. Kiva taldeak nola jokatu protokoloa dauka. HHn protokolo hau ez dugu jarraitzen, haurrak txikiak direlako, baina, bai aholkatzen gaituzte,

Hala bada:

a) Zer iritzi duzu honen inguruan?

Protokolo bat edukitzeak laguntzen duela (betetzen bada behintzat).

30) Bukatzeko, zer uste duzu aurkitzen dela elkarbizitza egoki baten oinarrian? Zer faktore izan beharko genituzke kontutan?

- Denok pertsonak garela eta denok garela desberdinak. Bestearen onarpena eta errespetua.
- Komunikatzeko modua. Komunikazio ez bortitza.

Honaino galdetegia. Mila esker zure parte hartze eta laguntzagatik.